

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

**KAPITALEZKO BALTZUEN ADMINISTRATZAILEEN  
LEIALTASUN BETEBEHARRA, DEBEKUEN SALBUESPENAK  
ETA DISPENTSA**

Zuzenbide Gradua

2022-2023 Ikasturtea

Donostian, 2023ko maiatzaren 16an

Egilea: Iñigo Pérez Arbizu

Zuzendaria: Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

## AURKIBIDEA

<b>LABURDURAK</b> .....	3
<b>1. SARRERA</b> .....	4
<b>2. LEIALTASUN BETEBEHARRA</b> .....	5
<b>2.1 LEIALTASUN BETEBEHARRAREN KLAUSULA OROKORRA</b> .....	5
<b>2.2 LEIALTASUN BETEBEHARRAREN SUBJEKTUAK</b> .....	11
<b>2.3 LEIALTASUN BETEBEHARRETIK ERATORRITAKO OBLIGAZIOAK</b> .....	12
<b>2.3.1 Oinarrizko obligazioak: debeku absolutuak</b> .....	12
<b>2.3.2 Interes gatazka egoerak ekiditeko betebeharrak: debeku erlatiboak</b> ....	15
<b>1. Ezaugarri orokorrak</b> .....	15
<b>2. Pertsona lotuak</b> .....	19
<b>3. Debeku erlatiboak: KSL 229.1 artikuluko abstentzio betebeharrak</b> .....	21
<b>i . Lotutako eragiketak egiteko debekua</b> .....	22
<b>ii. Sozietatearen izena erabili edo sozietatearen administratzaile izaera baliatu administratzailearen eragiketa pribatuetan behar ez bezala eragiteko debekua</b> .....	26
<b>iii. Helburu pribatuetarako sozietateren aktiboa erabiltzeko debekua</b> ....	27
<b>iv. Sozietatearen negozio aukeren aprobetxamendurako debekua</b> .....	29
<b>v. Kanpo ordainsaria jasotzeko debekua</b> .....	33
<b>vi. Lehia egiteko debekua</b> .....	36
<b>3. DEBEKUEN SALBUESPENA: DISPENTSA</b> .....	43
<b>4. ONDORIOAK</b> .....	52
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	54

## **LABURDURAK**

**AGE** Auzitegi Gorenaren epaia

**ART.** Artikulua

**EBO** Estatuko Boletin Ofiziala

**EMB** Erantzukizun mugatuko baltzua

**KSL** Kapitalezko Sozietateen Legea

**KZ** Kode Zibila

**MK** Merkataritza Kodea

**SA** Sozietate anonimoa

**SJFPZN** Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusia

**SL** Sozietate limitatua

## 1. SARRERA

Kapitalezko baltzuak trafiko juridikoan ohikoak dira oso enpresa jarduerak garatzeko tresna bezala eskaintzen dituzten abantailak direla eta. Horiek merkatuko subjektuekin, *ad extra*, dituzten harremanen bidez eragiketa ekonomikoak burutzen dituzte eta etekinak sortzeko bide dira. Horien ondoan, baltzuaren *ad intra* erlazioek garrantzia berezia dute pertsona juridikoaren bizitza eta garapenean. Gure ordenamendu juridikoak hala eskatuta, baltzuaren kudeaketaz administrazio organoa arduratzen da. Ataza burutzearen eskumenen esleipena egiten zaio, eta aldi berean, horien mugak gainditu ez ditzan, eta beti interes sozialaren alde egin dezan, betebeharrak ezartzen zaizkio. Horien artean leialtasun betebeharra nabarmendu daiteke eta xedea “bat eman eta bi hartu” euskal esaera zaharrak jasotakoa ekiditea da, alegia, administratzailearen gain ezarritako konfiantzaren abusu ez gitea administratzailearen interesean.

Konfiantzazko pertsona lortzea egiteko zaila izan daiteke, batez ere, hark izango duen botere maila dela eta interes sozialari eragin diezaiokeen kaltea esanguratsua izan daitekeelako. Merkataritza Erregistro Zentralak urtero argitaratzen dituen datuen arabera, baltzu anonimoen (%51) zein erantzukizun mugatuko baltzuen (%76) administrazio modalitate ohikoena administratzaile bakarra izan zen 2022. urtean<sup>1</sup>. Denboran atzera eginez, 2021. urtean<sup>2</sup> datuak oso antzekoak izan ziren, %51 eta %75, hurrenez hurren, eta 2020. urtean<sup>3</sup>, berdin-berdin. Ostera, 2022an baltzu anonimoen administrazio modu ohikoena administrazio kontseilua (%35) izan zen bitartean, erantzukizun mugatuko baltzuetan administratzaile solidarioak (%17) izan ziren. 2021 eta 2020 ekitaldietan datuak berdintsuak izan ziren. Horrenbestean, bazkideek kudeaketa pertsona bakar bati esleitzea hobesten dutela ikus daiteke.

Ondorengo lerroetan kapitalezko baltzuen, EMB eta SA nagusiki, eta, azken hauen artean kotizatu gabekoak, administratzaileen leialtasun betebeharraren eraentza juridikoa izango da aztergai. Hasteko, leialtasun betebeharraren klausula orokorra

---

<sup>1</sup> Registro Mercantil Central, Datos estadísticos año 2022, 48 orr. Hemen ikusia: <https://www.rmc.es/documentacion/publico/ContenedorDocumentoPublico.aspx?arch=Estadisticas\ESTADISTICAS-2022.pdf>

<sup>2</sup> Registro Mercantil Central, Datos estadísticos año 2021, 48 orr. Hemen ikusia: <https://www.rmc.es/documentacion/publico/ContenedorDocumentoPublico.aspx?arch=Estadisticas\ESTADISTICAS-2021.pdf>

<sup>3</sup> Registro Mercantil Central, Datos estadísticos año 2020, 48 orr. Hemen ikusia: <https://www.rmc.es/documentacion/publico/ContenedorDocumentoPublico.aspx?arch=Estadisticas\ESTADISTICAS-2020.pdf>

landuko da. Ostera, betebeharretik eratortzen diren obligazioak aztertuko dira, horiek bi taldeetan banatuz: absolutuak eta erlatiboak. Leialtasun betebeharraren eraentza derrigorrezkoa bada ere, KSL 230.2 artikulua 229.1 artikuluko obligazioak, erlatiboak deritzen horiek, salbuesteko aukera ematen du eta ikuspuntu hori abiapuntu hartuta landuko da gaia. Jarraian, debeku erlatiboak dispentsatzeko aurreikusitako prozedura eta horren ezaugarrien analisia burutuko da. Amaitzeko, gaiaren lanketa egin ostean ondorioztatutako konklusio nabarmenenak jasoko dira.

## **2. LEIALTASUN BETEBEHARRA**

### **2.1 LEIALTASUN BETEBEHARRAREN KLAUSULA OROKORRA**

Leialtasun betebeharra kapitalezko sozietateen administratzaileen betebeharraren bat da, Kapitalezko Sozietateen Legearen (KSL), 1/2010 Errege Dekretu Legegile bidez onartua<sup>4</sup>, 227 artikuluan jasoia klausula orokor modura. Leialtasun betebeharra jarraian adierazten den moduan zehazten da: administratzaileak kargua ordezkari fidel baten leialtasunarekin bete behar du, fede onez jokatzuz eta baltzuaren interes onenean (KSL 227.1 artikulua<sup>5</sup>).

Leialtasun betebeharra hortaz, hiru aldagaiek egituratzen dute: administratzaileak ordezkari fidel moduan jardutea, fede onez eta sozietatearen interes onenean.

Xedapen honek betebeharraren definizio orokor bat ematen du epaileari garapenezko arauetan esanbidez aurreikusi gabeko portaerak sozietatearekiko desleialak kalifikatzeko aukera ematearren<sup>6</sup>. Ostera, betebeharra KSL 228 eta 229 artikuluetan garatzen da debeku izaera eta izaera prebentiboa duten arauetan.

Aintzat izanik hiru osagaiek egituratzen dutela betebeharra, ebatzi beharreko lehen kontua horien guztien definizioa da.

Hasteko, ordezkari leialaren kontzeptua argitu behar da. Administratzaileari eskatutako leialtasunaren maila, ordezkari fidel bati eskatutakoa da. Administratzaile bat halakoa izango da hark ordezkatzeko duen pertsonaren interesak sustatu eta defendatzera

---

<sup>4</sup> 1/2010 Errege Dekretu Legegilea, 2010eko uztailaren 2koa (2010eko uztailaren 3ko EBO, 161 zkia.)

<sup>5</sup> KSL 227.1 artikulua: *Los administradores deberán desempeñar el cargo con la lealtad de un fiel representante, obrando de buena fe y en el mejor interés de la sociedad.*

<sup>6</sup> JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 227. Deber de lealtad”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 367 orr.

zuzentzen badu haren jarduera, zehazki, bere interes pertsonalen aurretik sozietatearenak ezarriaz, eta bereziki, subjektu bien interesak gatazkan sartzen direnean<sup>7</sup>.

Jarraian, KSL 227.1 artikulua galdatzen du administratzaileak fede onez jardutea. Kargua modu horretara burutzeak eskatzen du administratzailearen motibazio bakarra interes soziala erdiestea izatea<sup>8</sup>. Zentzu zabalean ulertu beharreko kontua da honakoa. Jomuga, Kode Zibileko (KZ)<sup>9</sup> 7 artikulua bide hartuta, administratzaileak bere funtzioen egikaritzan abusurik gabe jardutea da, sozietatearen aurkako jarduerak ekidinez, hala baltzuari justifikatu gabeko kalterik eragin ez diezaion<sup>10</sup>. Honela, administratzaileak baltzuak garatzen duen jardueraren, objektu soziala, izaera eta ezaugarrien arabera jardutea, baita merkatuko usadioen arabera aritzea ere eskatzen da. Eremu honetan, doktrinaren aburuz<sup>11</sup>, aplikagarria da komisio hartzaileari Merkataritza Kodeak (MK)<sup>12</sup> haren 255.II artikuluan ezartzen dion obligazioa, alegia, negozioa harena izango balitz bezala zaintzea, negozioaren izaerarekin bat eta merkataritzako usadioen arabera.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da fede oneko jokaera izatea ez dela mugatzen sozietateen zuzenbidera bakarrik, zuzenbide pribatuaren baitan obligaziozko harreman orotan ezartzen den betebeharra baita. Horren adierazle dira KZ 7.1 artikulua, modu orokorrean jasorik, baita MK 57 artikulua ere, merkataritzako kontratuak betetzeko oinarritzko printzipio gisa.

Azkeneko aldagaia, KSL 227.1 artikulua jasotzen duen “sozietatearen interes onena” da. Hori ez du Kapitalezko Sozietatearen Legeak berak definitzen, beraz, jurisprudentziaren ataza izan da definizio osatu bat ematea.

Kontzeptua azaltzearen, lehenengo eta behin sozietatearen interesa edo interes soziala zer den zehaztu behar da eta, beste hainbat eparen artean, AGE 4586/2021<sup>13</sup> nabarmendu daiteke, non interes soziala hala definitzen den: *En una sociedad de capital*,

---

<sup>7</sup> GARCÍA DE ENTERRÍA J. eta IGLESIAS PRADA J.L., “Lección 22. Los órganos de las sociedades de capital (II). Los administradores”, MENENDEZ A. eta ROJO A. (Zuz.) *Lecciones de Derecho Mercantil. Volumen I*, Civitas, Cizur Menor, 2022, 470 orr.

<sup>8</sup> HERNANDO CEBRIÁ, Luis, “La buena fe en el marco de los deberes de los administradores de las sociedades de capital: viejos hechos, nuevas implicaciones”, *Anuario de Derecho Civil*, Vol. 69, 4 zkia., 2016, 1401-1402 orr.

<sup>9</sup> 1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua (1889ko uztailearen 25eko Gaceta de Madrid, 206 zkia.)

<sup>10</sup> HERNANDO CEBRIÁ, Luis, *ob. cit.*, 1403 orr.

<sup>11</sup> *Ibidem*, 1403 orr.

<sup>12</sup> 1885eko abuztuaren 22ko Errege Dekretua (1885ko urriaren 16ko Gaceta de Madrid, 289 zkia.)

<sup>13</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4586/2021 Epaia, 2021eko abenduaren 12, 4. O.J.

*el interés social, aunque no se agote en el interés propio de sus socios, viene en gran medida conformado por dicho interés. No en vano, la sociedad tiene una connatural finalidad económica (lucro), que presidió su constitución y el desarrollo de su actividad, y que ordinariamente redundará en beneficio de sus socios. Lo anterior no impide que al reconocer personalidad jurídica propia a la entidad, distinta de sus socios, y al dotarla de un objeto social y, consiguientemente, de una finalidad, pueda hablarse de un interés de la propia sociedad. Este interés social no se identifica con el de los socios, pero se nutre del interés de estos últimos, y por eso la jurisprudencia **referencia el interés social al interés del conjunto de los socios**. Horrenbestez, interes soziala sozietatea osatzen duten bazkide multzoaren interesa da.*

Orobat, interes soziala bazkideen interes komuna bezala har daiteke, AGE 2260/2007<sup>14</sup>. Ildo beretik jotzen dute ere Auzitegi Gorenaren aurreko hainbat epaiak; esaterako, AGE 7624/2002 epaiak dio: *los intereses generales de la sociedad, entendidos como intereses comunes de todos los socios*<sup>15</sup>. Zeharkako bide batetik joaz, alegia, interes sozialaren kaltea zer den adieraziaz, AGE 5194/1998 epaiak hala definitzen du interes soziala: *la lesión al interés social que, como dice la sentencia de 19 de febrero de 1991, "no es otro que la suma de los intereses particulares de sus socios, de forma que cualquier daño producido en el interés común del reparto de beneficios, o en cualquier otra ventaja comunitaria, supone una lesión al interés social"*<sup>16</sup>.

Eremu honetan eztabaida doktrinala zabala da eta nagusiki, bi ikuspegi kontrajarri aurkezten dira: interes sozialaren kontratuzko eta erakundezko teoria<sup>17</sup>. Kontratuzko

---

<sup>14</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 2260/2007 Epaia, 2007ko apirilaren 12koa, 8. O.J.: *El interés social (...) no es, efectivamente, el de los accionistas individualmente considerados (sentencias de 29 de noviembre de 2.002 y 20 de febrero de 2.003), sino el común a todos ellos.*

<sup>15</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 7624/2002 Epaia, 2002ko azaroaren 18koa, 1. O.J.

<sup>16</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 5194/1998 Epaia, 1998ko irailaren 18koa, 3. O.J.

<sup>17</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 1686/2012 Epaia, 2012ko urtarrilaren 17koa, 7. O.J.: *Como hemos declarado en la sentencia 873/2011, de 10 de noviembre, no existe una posición uniforme sobre qué debe entenderse por "intereses de la sociedad", dadas las clásicas posiciones enfrentadas entre los defensores de las teorías institucionalista y contractualista -a las que cabe añadir otras: monistas, dualistas; pluralistas, finalistas, posibilidad de discriminar en función del acto o acuerdo, etc.- y así, mientras el artículo 127.bis del texto refundido de la Ley de Sociedades Anónimas, introducido por la Ley 26/2003, de 17 de julio -hoy 226 del texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital- parece inclinarse por un concepto institucionalista -"[l]os administradores desempeñaran su cargo como un representante leal en defensa del interés social, entendido como interés de la sociedad..." -, la recomendación 7 del Código Unificado de Buen Gobierno de las Sociedades Cotizadas, aprobado el 22 de mayo de 2006 por el Consejo de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, de innegable valor doctrinal, opta por una interpretación contractualista que pone énfasis "en el interés común de los accionistas o, si se prefiere, en el interés del accionista común" porque responde mejor a las expectativas de los inversores dirigida a "la maximización, de forma sostenida, del valor económico de la empresa".*

teoria Auzitegi Gorenak, beste hainbaten artean, aipatutako epaietan jarraitzen duen irizpidea da<sup>18</sup>.

Erakunde-zko teoriaren, teoria pluralista deitua ere, arabera berriz, interes soziala enpresaren edo pertsona juridikoaren berezko interesa da<sup>19</sup>. Honela, interes sozialaren balioa bazkideen, kapitalaren ekarpena egiten duten horien, interesaren ginetik kokatzen da eta eraginez interes hori asetzeak enpresaren ekoizpen eraginkortasuna lortzea dakar, horretarako bazkideen interes partikularrak alde batera utzirik<sup>20</sup>.

Eztabaida klasikoa, kontratuzko eta erakunde-zko ikuspuntuak, gainditzearren interes sozialaren teoria eklektikoa edo hibridoa proposatu da<sup>21</sup>: irizpide funtzionalista oinarri hartuta, sozietate itxien kasuan interes sozialaren kontzepzioa desberdina izango da merkatuan duten eraginaren arabera. Hala, merkatuan intzidentzia txikia duten baltzuen kasuan interes sozialaren kontratuzko teoria izango da aplikagarri eta aldiz, hedadura nabarmeneko baltzuetan erakunde-zko teoria. Nolabait, esan liteke interes sozialaren kontzepzioa esku artean dugun baltzuaren izaeraren, tipo soziala eta baltzu jakinaren ezaugarriak, arabera erabaki beharko dela kasuan kasu.

Aipatu diren epaiekin bat, Auzitegi Gorenaren doktrina kontratuzko irizpideen aplikazioaren aldekoa da, eta, beraz, hori izango da lan honetan aintzat hartuko dena. Hala ere, definizioa argi geratuko ez balitz ere, zalantzarik ez du sortzen administratzailearen interesa ez dela sozietatearen interesa, eta hortaz, administratzaileak bere interes pertsonala bilatu zein aseko balu, ez litzatekeela baltzuaren interesa lortzeko sustapena egiten ariko.

Interes sozialaren ildoari eutsirik, KSL 227.1 artikulua dio, administratzaileak kargua sozietatearen interes **onenean**, *en el mejor interés de la sociedad*, burutu beharra

---

*La jurisprudencia de esta Sala no deja de tener en consideración criterios contractualistas -así la sentencia de 12 de julio de 1983 se refiere al interés social como "el interés común de los socios" ; la 825/1998 de 18 de septiembre , reproduciendo la de 19 febrero 1991 , lo hace a que, lo hace a que "no es otro que la suma de los intereses particulares de sus socios , de forma que cualquier daño producido en el interés común del reparto de beneficios, o en cualquier otra ventaja comunitaria, supone una lesión al interés social"*

<sup>18</sup> Ikuspuntu horren alde agertzen da: ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús, "El interés social y los deberes de lealtad de los administradores", *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 20 zkia., 2016, 215-216 orr.

<sup>19</sup> Hala definitzen du BAYÓN SANZ, P., "El concepto de interés social en el derecho societario español: las teorías contractualistas e institucionalistas a debate", LÁZARO GÓNZALEZ, I. eta SERRANO MOLINA, A. (Zuz.), *Estudios jurídicos en homenaje al profesor Don José María Castán Vázquez*, Reus, Madrid, 2019, 499 orr.

<sup>20</sup> Teoria honen alde: ARROYO MARTÍNEZ, Ignacio, "Reflexiones en torno al interés social", *Revista de derecho mercantil*, 240 zkia., 2001, 423 orr. eta 431-435 orr.

<sup>21</sup> BAYÓN SANZ, P., *ob. cit.*, 506-507 orr.



duela. Dena den, interes hori hoberena izan beharrak, administrazio jarduera burutu aurretik zein den definitzeak zailtasunak ditu. Hori horrela, gogoan izan behar da administratzaileari esleitutako eskumenen izaera, hots, haren jokabidea edo portaera ez dagoela alde aurretik zehaztua eta ez dela hortaz, tasaturiko pauten multzoa. Ondorioz, jarduera garatzean eskumenezko eremu bat aitortzen zaio, KSL 225 eta 226 artikuluetan ikus daitekeen moduan<sup>22</sup>. Hortaz, interes onenaren interpretazioa diskrezionalitatearen ildotik ulertu behar da.

Interes soziala behin definiturik, sozietateen administratzaileen leialtasun betebeharraren aldagai nuklear gisa, ezinbestekoa da aztertzea jurisprudentziaren lana leialtasun betebeharraren definizioan: *lo relevante es que los administradores se abstengan de anteponer su interés personal al de la sociedad, que en principio viene configurado por el interés del conjunto de los socios*<sup>23</sup>. Hortaz, leialtasun betebeharraren gakoa da baltzuetako administratzaileek sozietatearen interesa lehenestea haien interes pertsonalaren aurretik.

Doktrinaren eremuan ildo bera jarraitzen da. Leialtasun betebeharrak gatazka egoera bat planteatzen du interes sozialaren eta administratzailearen interes pertsonalaren artean eta hori gainditzeko, administratzailearen jardunean, lehenengoa lehenetsi behar du baltzuen kudeatzaileak beti eta gainera, ez du interes soziala arriskuan jarri behar bere interes partikularren alde egiteagatik<sup>24</sup>. Erabaki oro hartzean bazkideen onura eta interesa izan behar dituzte gogoan, azken finean, kudeaketa sozialaren eraginak haiek pairatuko dituzte eta<sup>25</sup>. Hala, kapitalezko sozietateen administratzaileen diligenzia betebeharra balioaren sorreran zentratzen den bitartean, leialtasun betebeharra baltzuak sortzen duen balioaren banaketaz arduratzen da, administratzaileek bazkideen kaltetan haien eskumenak pertsonalki aberasteko jomugarekin erabili ez ditzaten<sup>26</sup>.

---

<sup>22</sup> JUSTE MENCÍA, J., “Artículo 227...”, 369 orr.

<sup>23</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4586/2021 Epaia, 2021eko abenduaren 12koa, 4. O.J.

<sup>24</sup> MÚGICA ALCORTA, Ramón, “Desde el Gobierno Corporativo a la responsabilidad de los administradores (y II)”, *Estudios de Deusto*, 58/1 zkia., 2010, 151 orr. Ildo beretik jotzen du RIBAS FERRER, V., *El Deber de Lealtad del Administrador de Sociedades*, LaLey, Madrid, 2010, 218 orr.: *la obligación de todo gestor de actuar en interés del principal en caso de conflicto de intereses, subordinando los propios intereses a favor de los intereses del principal, salvo que, previo disclosure del gestor, el principal autorice su actuación interesada.*

<sup>25</sup> URÍA R., MENÉNDEZ A., GARCÍA DE ENTERRÍA J., “La sociedad anónima: órganos sociales. Los administradores”, URÍA R. eta MENÉNDEZ A. (Zuz.), *Cursos de Derecho Mercantil I, Segunda edición*, Thomson-Civitas, 2006, Cizur Menor, 979 orr.

<sup>26</sup> GARCÍA DE ENTERRÍA J. eta IGLESIAS PRADA J.L., *ob. cit.*, 470 orr.

Hala ere, interes soziala ez da mugagabea, eta horrek, zilegia izan behar du. Zilegitasunaren muga hirugarrenen legezko eskubideak dira. Ez da onargarri, bazkideek hartutako erabakien exekuzioan hirugarrenen eskubide zilegiak kaltetzea<sup>27</sup>. Ildo beretik, interes sozialaren muga sozietate konkretuaren estatutu sozialak dira, eta horien eremua, aldi berean, ordenamendu juridikoa; KSL 225.1 artikuluan barneraturik diligentzia betebeharraren esparruan.

Horrenbestean, bazkideen interes eta helburuek juridikoki zilegiak izan behar dute. Aldagai hau aintzat hartzea garrantzitsua da oso, gerta daitekeelako, erantzukizun mugatuko edo sozietate anonimo bateko bazkideen interesa legez kontrakoa izatea edo hori erdiesteko modua edo forma legearekin bat ez etortzea. Kasu horietan guztietan, zentzuzkoa badirudi ere, adierazi behar da administratzaileek bazkideen interesen aurka joatea ez dela interes sozialaren aurka lan egitea, kontrakoa baizik. Izan ere, baltzu jakineko administratzaileak bazkideen interesak erdiesteko lana egiten ez badute, horien alde egiteak izan beharreko zuhurtzia urratzea ekartzen badu, KSL 225 artikuluko diligentzia betebeharra, bazkideek ezin dezakete alegatu administratzaileak desleialak izaten ari direla.

Lan honen helburua kapitalezko sozietateen administratzaileen leialtasun betebeharraren analisira zuzentzen bada ere, gogoan izan behar da KSL 227 artikuluan jasotako eginbeharra hertsiki lotua dagoela KSL 225 artikuluan<sup>28</sup> xedatzen den diligentzia betebeharrarekin. Azken finean, larriki arduragabea den portaerak leialtasun betebeharraren urratzea ere ekar dezake<sup>29</sup>.

KSL 227.1 artikulua erredakzioan jasotzen da leialtasuna karguaren egikaritzan, *desempeñar el cargo*, errespetatu beharreko betebeharra dela. Dena dela, hori ez da mugatzen administratzaileak administrazio egintzak burutzen dituen kasuetara bakarrik, baizik eta, haratago doan betebeharra da. Administratzaileak zaindu behar du

---

<sup>27</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4586/2021 Epaia, 2021eko abenduaren 12koa, 4. O.J.: *lógicamente esta consideración viene enmarcada por un límite, que la conducta de los administradores, respondiendo a lo que había sido convenido por los socios, no perjudique legítimos derechos de terceros.*

<sup>28</sup> KSL 225 artikulua: *1. Los administradores deberán desempeñar el cargo y cumplir los deberes impuestos por las leyes y los estatutos con la diligencia de un ordenado empresario, teniendo en cuenta la naturaleza del cargo y las funciones atribuidas a cada uno de ellos; y subordinar, en todo caso, su interés particular al interés de la empresa.*

*2. Los administradores deberán tener la dedicación adecuada y adoptarán las medidas precisas para la buena dirección y el control de la sociedad.*

*3. En el desempeño de sus funciones, el administrador tiene el deber de exigir y el derecho de recabar de la sociedad la información adecuada y necesaria que le sirva para el cumplimiento de sus obligaciones.*

<sup>29</sup> JUSTE MENCÍA, J., “Artículo 227...”, 370 orr.

bere kontura edo beste baten kontura, kudeatzen duen sozietatea ez den hirugarren bat, burutzen dituen negozioetan ere, interes sozialaren nagusitasuna bermatzea<sup>30</sup>. Betebeharraren denborazko eraginkortasuna aztertu ezker, printzipioz, arau orokorra da betebeharra administratzailearen kargugabetzearekin iraungitzea. Dena den, salbuespenen bat aurreikusten du araudiak, aurrerago aztergai izango dena.

Ostera, administratzaileak leialtasun betebeharra urratu ezker, bai KSL 227.1 artikuluko betebeharr orokorra bai jarraian aztergai izango diren 228 eta 229 artikulukoak, batetik, baltzuaren ondareari eragindako kaltea berdintzeko obligazioa du, eta bestetik, urraketaren bidez lortutako ezbidetzko aberastea itzuli beharko du (KSL 227.2 artikulua). Erantzukizun hori galdatzeko, KSL 236 eta hurrengo artikuluetako erantzukizun akzioarekin batera, KSL 232 artikulua ahalbidetzen du, administratzaileak betebeharra urratuz burututako egintza zein kontratuak aurkaratzeko, bukarazteko zein efektuak enkaitzeko akzioak egikaritzea eta bere kasuan, deusezteko akzioa ere.

## 2.2 LEIALTASUN BETEBEHARRAREN SUBJEKTUAK

Behin klausula orokorra aztertuta, eta hortik eratoritzen diren obligazioetan murgildu aurretik, betebeharraren hartzaileen inguruko zehaztapen batzuk egin behar dira. Diligentzia betebeharrarekin gertatzen den modu berean, leialtasun betebeharra kapitalezko baltzuen zuzenbidezko administratzaileei zuzentzen zaie, KSL 236.1 artikulua. *Stricto sensu* administratzaileaz beste, legediak erantzukizunaren hedatze subjektiboa burutu du KSL 236.3 eta 236.5 artikulua bitartean.

Hala, egitatezko administratzaileek zuzenbidezkoen erantzukizun bera dute, KSL 236.3 artikulua. Araudiak berak definitzen du egitatezko administratzailea: trafikoa titulurik gabe, titulu deusez, iraungitako titulu edo beste titulu batekin administratzaileari dagozkion berezko funtzioen egikaritzea burutzen duen pertsona da. Era berean, KSL 236.3 *in fine*, administratzaileek beste pertsona baten jarraibideen pean jarduten badute, horiek ematen dituen pertsona egitatezko administratzailetzat hartuko da. Azken honi, ezkutuko administratzaile deritzo eta hala kontsideratzeko beharrezkoa da hark modu ohikoan eta orokorrean hala jardutea<sup>31</sup>.

---

<sup>30</sup> *Ibidem*, 368 orr.

<sup>31</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, "Anatomía del deber de lealtad", *Actualidad jurídica Uría Menéndez*, 39 zkia., 2015, 58 orr.

Halaber, baltzu jakinaren administrazio modua administrazio kontseilua denean eta KSL 249 artikularekin bat kontseiluaren ahalmenen eskuordetzea ez dagoenean, administratzaileei dagozkien betebeharrak eta eratortzen den erantzukizuna baltzuaren goi zuzendaritza duen pertsonari dagokio, izendapena edozein dela ere (KSL 236.4 artikulua).

Orobat, baltzuaren administratzaile pertsona juridiko bat den kasuan, administratzaile karguaren funtzioen egikaritza iraunkorra duen pertsona fisikoak ere baltzuarekiko leialtasun betebeharra, beste legezko betebeharrekin batera, gorde beharko du eta urraketa gertatu ezker, administratzaile den pertsona juridikoarekin modu solidarioan erantzungo, KSL 236.5 artikulua.

Hori esanik, KSL 236 artikuluan jasotzen den betebeharraren hedatzea ez da nahastu behar ostera landuko diren KSL 231 artikuluko administratzaileari lotutako pertsonekin. Lehenak betebeharraren hartzaile eta urraketagatik erantzule diren bitartean, bigarrenak ez dira.

## **2.3 LEIALTASUN BETEBEHARRETIK ERATORRITAKO OBLIGAZIOAK**

### **2.3.1 Oinarrizko obligazioak: debeku absolutuak<sup>32</sup>**

Leialtasun betebeharretik eratortzen diren oinarrizko obligazioak jasotzen dira KSL 228 artikuluan, horiek guztiak KSL 227.1 artikuluko leialtasun betebeharraren klausula orokorraren garapena direlarik.

Obligazio horien izaerari dagokionean, hauek absolututzat edo erabat debekatutako portaeratzat<sup>33</sup> hartzen dira baltzuak batzar orokorraren edo administrazio organoaren bidez salbuetsi ezin dituelako, KSL 230 artikuluen arabera. Esanbidez, KSL 230.2.I artikuluan jasotzen da, interes gatazka egoerak ekiditeko betebeharrak baino ezin daitezkeela dispentsatu, hau da, KSL 229.1 artikuluan jasotakoak. Aurrerago izango dira aztergai.

---

<sup>32</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “Anatomía... lanean egileak erabiltzen den terminologia erabiltzea erabaki dut, egia bada ere, doktrinaren eremuan beste proposamen batzuk egin direla. GARCÍA DE ENTERRÍA J. eta IGLESIAS PRADA J.L., *ob. cit.*, 470-472 orr. lanean obligazio sustantibo kontzeptua erabiltzen da.

<sup>33</sup> GARCÍA COMPANYS, A. “El deber de lealtad de los administradores: una aproximación desde el análisis económico del derecho”, OLMEDO PERALTA, E. eta GALACHO ABOLAFIO, A. (Koord.), *Derecho de sociedades. Cuestiones sobre órganos sociales*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019, 780 orr.

Honako hauek dira KSL 228 artikuluan zerrendatzen diren kapitalezko baltzuen administratzaileen leialtasun betebeharretik eratorzen diren oinarritzko obligazioak<sup>34</sup>:

- a. Administratzaileak kargua dela eta dituen ahalmenak aurreikusitako funtzio edo helburuetarako baino ez erabiltzea (KSL 228.a artikulua).
- b. Administratzaile karguaren egikaritzan sarbidea izandako informazio, datu, txosten edo aurrekarien inguruko sekretua gordetzea, bai karguaren egikaritzan baita kargua utzi ostean ere (KSL 228.b artikulua). Legeak baimentzen edo eskatzen duen kasuetan baino ezin izango da obligazio hau salbuetsi, (KSL 228.b *in fine* artikulua). Ostera aztertuko den informazio konfidentzialaren erabilera pribatuaren debekuarekin (KSL 229.1.c art.) lotura estua du.
- c. Administratzaileak edo hari lotutako pertsona batek zuzeneko edo zeharkako interes gatazka duen akordio edo erabakien eztabaidan eta bozketan abstenitzea (KSL 228.c artikulua). Abstentzio betebeharretik salbuesten diren erabaki edo akordio bakarrak, administratzaileari bere administratzaile izaerari eragiten dioten horiek dira, administrazio organo edo esanahi analogoko karguetarako izendapen edo errebokatze kasuak barne (KSL 228.c *in fine* artikulua).
- d. Kargua erantzukizun pertsonaleko printzipioaren pean burutu, irizpide edo judizio askatasunarekin eta hirugarrenen jarraibide edo loturekiko independentziarekin (KSL 228.d artikulua).
- e. Administratzailearen interesak, norbere kontura edo beste baten kontura, interes sozialarekin eta administratzaileak baltzuekiko dituen betebeharrekin gatazkan sar ez daitezen beharrezko neurriak hartzea (KSL 228.e artikulua). Honakoa hau leialtasun betebeharraren nerbio zentraltzat hartzen da *ningún conflicto* araua deritzo eta *ex ante* izaera du<sup>35</sup>.

Zehaztapen bat egitearren, administratzailearen beste baten konturako interes gatazkak esan nahi du administratzaileak bi nagusiekiko, bi baltzu

---

<sup>34</sup> Lanaren helburua eta hedadura direla eta, zerrendatu baino ez dira egingo. Horiek ezagutzea garrantzizkoa irizten dut, batetik, leialtasun betebeharra eraentzen duten obligazio guztien ikuspegi orokorra izateko eta bestetik, ostera azalduko diren obligazio dispentsagarrien oinarria, KSL 228.e artikulua, ezagutzeko. Hauen inguruan, besteak beste: GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 228. Obligaciones básicas derivadas del deber de lealtad”, *Comentario de la Ley de Sociedades de Capital, Tomo III, La Junta General, la administración de la sociedad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 3133-3148 orr., JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 228. Obligaciones básicas derivadas del deber de lealtad.”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 377-394 orr., VICENT CHULIÁ, Francisco, *Introducción al derecho mercantil, 24ª Edición, Volumen I*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2022, 1212-1214 orr.

<sup>35</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “Anatomía...”, 53 orr.

adibidez, betebeharraren fiduziarioak dituela eta horren baitan, leialtasun bikoitza gorde beharra duela<sup>36</sup>.

Betebeharraren gatazka, *conflicto de deberes*, interes gatazkarekin parekatu behar da. Izan ere, administratzaileari galdatutako objektibotasuna galtzearen arriskua, eta eraginez, babesten den interesa kaltetua izateko arriskua antzekoa baita kasu bietan<sup>37</sup>. Hori dela eta, betebeharraren gatazka besteren konturako interes gatazka eraentzen du.

Berezitasun modura, interes gatazka sor dezakete ere sozietate taldea, MK 42 artikulua, osatzen duten baltzuen arteko eragiketek, bereziki, menpekoaren eta nagusiaren artekoek, eta hauei, talde barneko eragiketak deritze<sup>38</sup>. Horiek arautzera KSL 231bis artikulua<sup>39</sup> dator, 5/2021 Lege<sup>40</sup> bidez barneratua Kapitalezko Sozietateen Legean, sozietate taldeek dituzten berezitasunak direla

---

<sup>36</sup> *Ibidem*, 54 orr.

<sup>37</sup> Auzitegi Gorena, Zibil gela, 3794/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 17koa, 6. O.J.: *al conflicto de interés debe equipararse el conflicto de deberes, porque en uno y otro caso, el riesgo de quiebra de la objetividad exigible al administrador y, consiguientemente, el riesgo de menoscabo de la integridad del interés protegido, es similar. Por ello, el conflicto de deberes constituye un conflicto de interés por cuenta ajena.*

<sup>38</sup> Sozietate taldeek dituzten berezko dinamikak zein ezaugarriak direla medio eta lan honen hedadura, gaiari aipamena baino ez zaio egingo, jakitearren, interes gatazka egoerak modu berezian arautzen direla sozietate taldeetan.

<sup>39</sup> KSL 231 bis artikulua: *1. La aprobación de las operaciones que celebre la sociedad con su sociedad dominante u otras sociedades del grupo sujetas a conflicto de interés corresponderá a la junta general cuando el negocio o transacción en que consista, por su propia naturaleza, esté legalmente reservada a la competencia de este órgano y, en todo caso, cuando el importe o valor de la operación o el importe total de operaciones previstas en un acuerdo o contrato marco sea superior al 10 % del activo total de la sociedad.*

*2. La aprobación del resto de las operaciones que celebre la sociedad con su sociedad dominante u otras sociedades del grupo sujetas a conflicto de interés, corresponderá al órgano de administración. No obstante lo previsto en los artículos 228.c) y 230, la aprobación podrá hacerse con la participación de los administradores que estén vinculados y representen a la sociedad dominante, en cuyo caso, si la decisión o voto de tales administradores resultara decisivo para la aprobación, corresponderá a la sociedad y, en su caso, a los administradores afectados por el conflicto de interés, probar que el acuerdo es conforme con el interés social en caso de que sea impugnado y que emplearon la diligencia y lealtad debidas en caso de que se exija su responsabilidad.*

*3. La aprobación de operaciones que celebre la sociedad con su sociedad dominante u otras sociedades del grupo sujetas a conflicto de interés podrá ser delegada por el órgano de administración en órganos delegados o en miembros de la alta dirección siempre y cuando se trate de operaciones celebradas en el curso ordinario de la actividad empresarial, entre las que se incluirán las que resultan de la ejecución de un acuerdo o contrato marco, y concluidas en condiciones de mercado. El órgano de administración deberá implantar un procedimiento interno para la evaluación periódica del cumplimiento de los mencionados requisitos.*

*4. A los efectos de los apartados anteriores, no se considerarán operaciones realizadas con una sociedad del grupo sujeta a conflicto de interés aquellas realizadas con sus sociedades dependientes, salvo cuando en la sociedad dependiente fuese accionista significativo una persona con la que la sociedad no podría realizar la operación directamente sin aplicar el régimen de operaciones con partes vinculadas. No obstante, para la sociedad dependiente que esté sujeta a esta Ley, por tratarse de operaciones celebradas con la sociedad dominante, será de aplicación lo previsto en los apartados anteriores.*

<sup>40</sup> 5/2021 Legea, 2021eko apirilaren 12koa (2021eko apirilaren 13ko EBO, 88 zkia.)

eta administratzaileen eta baltzuen artean sortzen diren interes gatazkei tratamendu juridiko espezifiko bat ematearren, eta bereziki, KSL 228.c eta 230 artikuluei dagokionean. Hala ere, aintzat izan ez dela leialtasun betebeharraren obligazio absolutu modura zerrendatzen legean baina hemen kokatzen da interes gatazka eraendu dezaketelako halako eragiketek.

### 2.3.2 Interes gatazka egoerak ekiditeko betebeharrak: debeku erlatiboak<sup>41</sup>

#### 1. Ezaugarri orokorrak

Jada aipaturiko KSL 228.e artikulua, interes gatazka eratu dezaketen egoerak ekiditeko oinarrizko obligazio orokorra ezartzen du hasiera batean, jarraian, KSL 229.1 artikulua abstentzio betebeharren multzoa jasotzeko. Kapitalezko baltzu baten kudeaketak kasu askotan baltzuaren eta administratzailearen interesen arteko gatazka sortzea ekar dezake, pertsona bereizi bezala, interes kontrajarriak dituzten subjektuak baitira. Aukera hori posible izateak, ezinbestekoa egin du legegileak *ex ante* izaera duten legezko aurreikuspen anitz jaso izana kapitalezko sozietateen administratzaileen leialtasun betebeharra gordetzeko helburuarekin.

Sozietateen eremuan interes gatazka egoera bi ukanbeharrek osatzen dute: alde batetik, baltzuaren eta administratzailearen interesen kontrajartzea eta beste aldetik, inguruabar horien baitan erabakiak hartzeak baltzuari eragin diezaiokeen kaltea<sup>42</sup>.

Definizio orokor horretatik abiatuz, interes gatazka mota bi berezitzen dira: zuzenekoa eta zeharkakoa<sup>43</sup>.

Zuzeneko interes gatazka hala definitzen da: baltzuaren eta administratzailearen arteko interes kontrakotasun egoera non administratzailearen interesak modu

---

<sup>41</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, "Anatomía... 43-65 orr. lanean egileak erabiltzen den terminologia erabiltzea erabaki dut, egia bada ere, doktrinaren eremuan beste proposamen batzuk egin direla. Esaterako, GARCÍA COMPANYS, A., *ob. cit.*, 782 orr. lanean *potenzialki onartutako portaerak (conductas potencialmente admitidas)* terminoa erabiltzen da.

<sup>42</sup> EMPARANZA SOBEJANO, A. "Capítulo II. El conflicto de interés entre el administrador y la sociedad. Conflicto de interés directo e indirecto del administrador en el art. 228 c) LSC tras la modificación del art. 231 LSC", *Las sociedades de capital: sus intereses y sus conflictos*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2022, 186 orr.

<sup>43</sup> Modu laburrean hala definitzen ditu kontzeptu hauek *Diccionario Panhispánico del español jurídico* hiztegiak. Zuzeneko interes gatazka: *Situación en la que es el propio administrador el que tiene un interés personal propio, distinto o contrario al de la sociedad*. Aldiz, hala definitzen da zeharkako interes gatazka: *Situación en la que una persona vinculada al administrador tiene un interés distinto o contrario al de la sociedad*. <https://dpej.rae.es/lema/conflicto-de-inter%C3%A9s-directo> eta <https://dpej.rae.es/lema/conflicto-de-inter%C3%A9s-indirecto> hurrenez hurren.

nabarmenean baltzuaren interesetikiko bestelakoak diren<sup>44</sup>. Honela, administratzaileak baltzuaren interesen aurka eta bere interes pertsonalaren alde jarduteko arrisku nabaria sortzen da.

Zeharkako interes gatazkari erreparatuz, honek bi aldera ditu:

Batetik, kontrajartzen diren interesak baltzuarenak eta administratzailearekin lotura duen pertsona batenak dira; azken hori, pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke eta administratzaileak harekin harreman pertsonal (familia harremanak barne), profesional edo sozietario bat izango du. Administratzailearen interesa tartean ez badago ere, ulertzen da administratzaileari dagozkion erabakiak hartzerako unean interes gatazka horrek baldintzatzen duela. Hala, arriskua sortzen da baltzuaren interesen kaltetan administratzaileak harekin lotura duen pertsonaren interesak hobestea<sup>45</sup>.

Bestetik, zeharkako interes gatazka egongo da ere, delako kontratua baltzuaren eta administratzaileak kontrolatzen duen edo hari lotua dagoen baltzu baten artean burutzen den kasuetan. Era berean, gatazka bera sortuko da kontratua baltzuaren eta administratzailearen interesekin lotura estua duen edozein pertsonarekin burutzen den kasuetan<sup>46</sup>. Honela, administratzaileak baltzuarekin zeharkako interes gatazka izango du administratzen duen baltzuak sinatu duen kontratuan administratzaileak baltzuaren kontrako interesa duelako, edo behintzat, interes kontrajarria.

Modu laburtuan esatearren, zeharkako interes gatazka egongo da burututako eragiketaren onuradun administratzaileari lotutako pertsona bat edo harekin harreman estua duen pertsona bat denean. Halako kasuetan, ulertzen da administratzaileak hirugarren baten tresna modura jarduten duela, hirugarren hori hari lotutako pertsona bat izanik<sup>47</sup>. Beraz, modu inplizituan ulertzen da administratzaileak nolabaiteko onura jasotzen duela. Ondorioz, administratzaileak baltzuaren kudeaketaren baitan hartu behar dituen erabakietan gorde beharreko independentzia (KSL 228.d artikulua) eta neutraltasuna gal ditzake, gogoan izanik, administratzaileari KSL 226 artikulua<sup>48</sup> eskaintzen dion diskrezionalitate eremua.

---

<sup>44</sup> EMPARANZA SOBEJANO, A. "Capítulo II. El conflicto de interés...", 187 orr.

<sup>45</sup> *Ibidem*, 187 orr.

<sup>46</sup> *Ibidem*, 188 orr.

<sup>47</sup> *Ibidem*, 190 orr.

<sup>48</sup> KSL 226 artikulua: *I. En el ámbito de las decisiones estratégicas y de negocio, sujetas a la discrecionalidad empresarial, el estándar de diligencia de un ordenado empresario se entenderá cumplido cuando el administrador*



Interes gatazka aldera honen bidez, zeharkakoa, baltzuari sortzen zaion eragina interes zuzenekoak sortzen duen berdina da, alegia, baltzuaren kaltea eta administratzailearen edo hari lotutako pertsonaren onura.

Behin interes gatazka modalitateak aztertuta, interes gatazkek ekiditeko obligazioaren denborazko aldagaia aztertu ezker, berez, administratzaileak behin izendapena eginda eta hark kargua onartuta izanen ditu karguari dagozkion ahalmen eta betebeharrak (KSL 214.3 artikulua) ostera Merkataritza Erregistroan beharrezko inskripzioa egitea galdatzen bada ere, KSL 215 eta Merkataritza Erregistroko Erregelamenduko (MEE)<sup>49</sup> 138 eta hurrengo artikuluek jasotzen duten moduan. Dena dela, administratzaileak interes gatazka arriskua izendatua izan aurretik ere jakinarazi diezaioke baltzuari, eta hala, kargua onartu ezker, KSL 228.e artikulua ezarritako betebeharra lehen unean bete neurri egokiak harturik<sup>50</sup>. Jakinarazpen hori izendapen modalitatearen araberakoa izango da, hau da, batzar nagusiari arau orokorrez (KSL 214 artikulua) edo administrazio kontseiluari sozietate anonimoetan kooptazio bidezko izendapena egiten den kasuetan (KSL 244 artikulua eta MEE 139 artikulua).

Administratzailearen batek kargua egikaritzean hark edo hari lotutako pertsona batek zuzeneko edo zeharkako edozein interes gatazka egoera baltzuari komunikatu behar dio (KSL 229.3.I artikulua). Komunikazioaren hartzailea administrazio moduaren araberakoa izango da. Modalitatea mankomunatua, solidarioa edo administrazio kontseilua denean, hartzaile gainontzeko administratzaileak eta bere kasuan, kontseilua izango dira. Aldiz, administratzaile bakarra denean, batzar orokorrari jakinarazi behar zaio, KSL 229.3.I artikulua xedatzen duen moduan. Gainera, horiek urteko kontuen parte diren memorian (KSL 259 artikulua) jaso beharko dira KSL 229.3.II artikuluekin bat. Komunikazioa, ostera aztertuko den dispentsari dagokionean, dispentsa emateko hasierako pausoa izan daiteke eta baltzuak interes gatazka egoeraren inguruan hasierako balorazioa egiteko unea<sup>51</sup>.

---

*haya actuado de buena fe, sin interés personal en el asunto objeto de decisión, con información suficiente y con arreglo a un procedimiento de decisión adecuado.*

*2. No se entenderán incluidas dentro del ámbito de discrecionalidad empresarial aquellas decisiones que afecten personalmente a otros administradores y personas vinculadas y, en particular, aquellas que tengan por objeto autorizar las operaciones previstas en el artículo 230.*

<sup>49</sup> 1784/1996 Errege Dekretua, 1996ko uztailaren 19koa (1996ko uztailaren 31ko EBO, 184 zkia.)

<sup>50</sup> SÁNCHEZ-CALERO GUILARTE, Juan eta SÁNCHEZ CALERO, Fernando, “Capítulo 10: La organización de la sociedad anónima” *Instituciones de Derecho Mercantil, Tomo I, 20ª Edición*, Aranzadi, Cizur Menor, 2015, 291 orr.

<sup>51</sup> VALPUESTA GASTAMINZA, Eduardo, *Comentarios a la ley de sociedades de capital*, Wolters Kluwer, Madrid, 2018, 603 orr.

Halaber, KSL 229.1 artikuluan ezarritako abstentzio betebeharrak ez dira zuzentzen administratzailea bere karguaren egikaritzan ari den uneetara, bere karguaren egikaritzza modu formalean aurrera eramaten ez duen uneetara baizik. Une horietan administratzaileak aktibo sozialaren gain duen boterea dela eta, sozietatearen interesa baztertzeko arriskua sortzen da haren interes pertsonalaren edo baltzua ez den hirugarren baten interesen mesedetan<sup>52</sup>.

Interes gatazka eraentzen duten egoerak ekiditeko abstentzio betebeharraren aldagai subjektiboari dagokionean, gatazkan aurki daitekeen administratzaileari zuzentzeaz beste, baltzuaren administrazio organoa osatzen duten gainontzeko administratzaileei ere zuzentzen zaie<sup>53</sup>; noski, administrazio modua administratzaile bakarra den kasuetan ezinezkoa izango da hori. Hortaz, ez da aintzat hartzen administratzailea bera den gatazkan aurki daitekeena ala beste bat, baizik eta administrazio organoa osatzen duten kide guztien gaineko obligazioa ezartzen da; bereziki, haiek aurki daitezkeen egoerekiko, eta orokorrean, gainontzekoen egoerekiko.

Gainontzekoen interes gatazka egoeretan, gogoan izan behar da zein den organoa osatzen duten kideek besteen inguruan duten informazioa eta horrek eragiten dizkien oztopo eta mugak. Betebeharrak ez die eskatzen beste administratzaileen egoera pertsonal zein profesionalaren ikerketa egitea, baizik eta karguaren egikaritzan ezagutzen dituzten elementu adierazgarrienak aintzat harturik, interes gatazkak ekiditeko beharrezko informazioa helaraztea organo eskudunari, batzar orokorra ala administrazio organoa (KSL 229.3 artikulua), neurririk eraginkorrenak hartu eta baltzuaren interes onena gorde ahal izateko.

KSL 229.1 artikuluan barneratzen diren abstentzio betebeharrak guztiak interes sozialaren babes tresnak dira eta, Auzitegi Gorenak haren 5407/2014 Epaian<sup>54</sup> adierazi zuen moduan, interes soziala gordetzeko biderik lausoena, edo behintzat ez hain oldarkorra, kontsidera daitezke, proportzionaltasuna gorderik eta ebatzi nahi den arazoarekiko egokiak. Dena den, gatazka aldizkakoa den kasuetarako soilik.

---

<sup>52</sup> JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 229. Deber de evitar situaciones de conflicto de interés”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 396 orr.

<sup>53</sup> SÁNCHEZ-CALERO GUILARTE, Juan eta SÁNCHEZ CALERO, Fernando, *ob. cit.*, 291 orr.

<sup>54</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 5407/2014 Epaia, 2014ko azaroaren 11koa, 5. O.J.: *el remedio de la abstención de intervenir en los acuerdos o decisiones relativos a la operación a que el conflicto se refiere, como forma de protección del interés social y, como señala la doctrina, como técnica menos invasiva y, por tanto, más proporcionada y adecuada a la naturaleza del problema, pero siempre que la situación de competencia fuera meramente ocasional.*

## 2. Pertsona lotuak

Elementu bereizgarri bat kontuan hartu behar da. Leialtasun betebeharraren hartzaile eta erantzule kapitalezko baltzuen administratzaileak dira. Hala eta guztiz ere, eta KSL 229.2 artikulua oinarri izanda, administratzaileak leialtasun betebeharra urratu dezake, ez soilik hark burututako jardueren bidez, baita hari lotutako pertsonak, KSL 231 artikuluan jasoak, burututako portaeren bitartez ere.

Zehazki, interes gatazkak eraentzen dituzten egoerak ekiditeko betebeharraren garapenezko abstentzio betebeharrak, KSL 229.1 artikuluan zerrendatutakoak, kapitalezko baltzuen administratzaileen lotutako pertsonak ere zuzentzen zaizkie. Alegia, debekaturik dauden egintza edo jardueren onuradun administratzailea ez, baina hari lotutako pertsona, KSL 231 artikuluan jasotako terminoetan, bat bada, administratzailearen leialtasun betebeharra modu berean urratua izanen da eta KSL 227.2 artikuluan jasotako erantzukizuna eratorriko.

Aintzat izan, pertsona lotuei zuzentzeak ez duela esan nahi haiek leialtasun betebeharra bete behar dutenik edo haiek direnik erantzuleak. Ondorioz, administratzailearen portaera baltzuekiko desleial kontsideratuko da interes gatazka bai administratzailearen, bere zein beste baten kontura aritzean, eta baltzuaren artean gertatzean, baita administratzaileari lotutako pertsona baten eta baltzuaren artean gertatzerakoan ere<sup>55</sup>. Baina, lotutako pertsonak debekatutako portaera burutzen badu ere, hari ezin zaio galdatu leialtasun betebeharra urratzeagatik erantzukizuna, hark ez du baltzuekin inolako harremanik.

Administratzaileari lotutako pertsonak *numerus clausus* sistemari jarraituaz zehazten ditu Kapitalezko Sozietateen Legeak berak haren 231 artikuluan eta horrenbestean ez da onartzen zerrendaren inolako zabalkuntzarik egitea<sup>56</sup>. Lotutako pertsonak administratzailea pertsona fisikoa ala juridikoa izatearen arabera bereizten dira.

---

<sup>55</sup> Auzitegi Gorena, Zibil gela, 3794/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 17koa, 3. O.J.: *el deber de lealtad es infringido tanto cuando el conflicto de interés se produce entre la sociedad y el administrador, actuando este por cuenta propia o ajena, como cuando el conflicto se produce entre la sociedad y una persona vinculada con el administrador, considerándose como persona vinculada cualquiera de las enumeradas en el art. 231 LSC.*

<sup>56</sup> Auzitegi Gorena, Zibil gela, 3794/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 17koa, 3. O.J.: *el art. 231 LSC contiene un listado, con el carácter de numerus clausus [relación cerrada], de quiénes son esas personas vinculadas a los administradores sociales a los efectos del deber de evitar situaciones de conflicto de interés (...) Las personas vinculadas al administrador, a efectos de aplicar el art. 229.2 LSC, son exclusivamente las enumeradas en el art. 231 LSC.*

Baltzuaren administratzailea pertsona fisikoa den kasuetan, KSL 231.1 artikuluari jarraiki, harekiko pertsona lotuak ondorengoak dira:

- a. Administratzailearen ezkontidea edo harekin afektibitate harreman analogoa duen pertsona, adibidez, izatezko bikotekidea edo ezkontuta egon ez arren etxebizitza berdinean bizi den bikotekidea<sup>57</sup>.
- b. Administratzailearen edo bere ezkontidearen aurreko zein ondorengo ahaideak baita anai-arrebak ere.
- c. Administratzailearen aurreko zein ondorengo ahaideen baita anai-arreben ezkontideak.
- d. Administratzaileak, zuzenean edo zeharka, baita bitarteko pertsona baten bidez ere, sozietate edo erakunde baten administrazio-organoan edo goi-zuzendaritzan duen partaidetzak eragin nabarmena ematea edo haietakoren batean zein sozietate nagusian postu bat betetzea. Ondorio horietarako, sozietatearen kapitalaren edo boto-eskubideen %10eko edo hortik gorako edozein partaidetzak eragin esanguratsua duela uste da, eta partaidetza horren arabera, izatez edo zuzenbidez, sozietatearen administrazio-organoan ordezkari izan daiteke.
- e. Administrazio organoan administratzaileak ordezkari izan diren bazkideak.

Familia harremani dagokionean, bereziki, KSL 231.1.b eta c artikuluko pertsonak, sortzen den arazoetako bat da haiek administratzailearen eragin eremutik kanpo gelditzen direla. Beste hitz batzuetan esanda, gerta daiteke administratzaileak haiekin harremanik ez izatea eta ondorioz, haiek kontrolpean gordetzeko ezintasuna izatea eta haiek burutzen dituzten eragiketek administratzailea modu negatiboan eragitea. Orduan, legeak ezarritako erregimena zorrotzegia edo estuegia izan daiteke, administratzaileari, lotutako pertsonari dagokionean, arrunta baino arreta maila handiagoa ezarriaz<sup>58</sup>.

Aldiz, sozietatearen administratzailea pertsona juridiko bat denean, harekiko lotutako pertsonen zerrenda desberdina da, nagusiki, administratzaile horrek duen berezitasuna dela eta. KSL 212.1 artikulua pertsona juridikoak kapitalezko baltzuen administratzaile izatea ahalbidetzen du, horretarako, KSL 212 bis.1 artikuluekin bat, beharrezkoa izanik pertsona fisiko ordezkari baten izendapena. Pertsona fisiko horri

---

<sup>57</sup> HERRANZ RAMOS, Isabel “El deber de abstenerse de usar el nombre de la sociedad o la condición de administrador para influir indebidamente en la realización de operaciones privadas”, *Revista de Derecho de Sociedades*, 44 zkia., 2015, 314 orr.

<sup>58</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “Anatomía...”, 56 orr.

dagozkio, administratzaile den pertsona juridikoaren ordezkari gisa, karguari dagozkion funtzioen egikaritze iraunkorra.

Egoera zehazturik, KSL 231.2 artikuluari jarraituz, administratzaile pertsona juridikoarekiko lotutako pertsonak jarraian zerrendatzen diren hauek dira:

- a. Administratzaile pertsona juridikoarekiko Merkataritza Kodeko 42 artikuluko<sup>59</sup> lehen atalean jasotako egoeraren batean aurkitzen diren bazkideak.
- b. Administratzaile pertsona juridikoaren zuzenbidezko edo egitatezko administratzaileak, likidatzaileak edo ahalmen orokorrak dituzten ahaldun orokorrak.
- c. Talde berdinen parte diren sozietateak eta haien bazkideak.
- d. Administratzaile pertsona juridikoaren ordezkariarekiko KSL 231.1 artikuluan adierazitako moduan lotutako pertsonen izaera duten pertsonak.

### **3. Debeku erlatiboak: KSL 229.1 artikuluko abstentzio betebeharrak**

KSL 228.e artikuluko interes gatazka egoerak ekiditeko betebeharrak orokorra abiapuntu izanda, KSL 229.1 artikuluko interes gatazka sortzen duten sei egoera zerrendatzen ditu, horien aurrean administratzaileei abstentzio betebeharra ezarriko. Debekuzko obligazio hauek erlatibotzat hartzen dira, KSL 230.2 eta 230.3 artikuluek bide ematen dutelako legez ezarritako prozeduraren bidez, administratzaileak betebeharra betetzeaz salbuesteko eta beraz, debekaturik dagoen portaera baimentzeko.

---

<sup>59</sup> Merkataritza Kodeko 42.1.II artikuluko hala definitzen ditu sozietate taldeak: (...) *Existe un grupo cuando una sociedad ostente o pueda ostentar, directa o indirectamente, el control de otra u otras. En particular, se presumirá que existe control cuando una sociedad, que se calificará como dominante, se encuentre en relación con otra sociedad, que se calificará como dependiente, en alguna de las siguientes situaciones:*

*a) Posea la mayoría de los derechos de voto.*

*b) Tenga la facultad de nombrar o destituir a la mayoría de los miembros del órgano de administración.*

*c) Pueda disponer, en virtud de acuerdos celebrados con terceros, de la mayoría de los derechos de voto.*

*d) Haya designado con sus votos a la mayoría de los miembros del órgano de administración, que desempeñen su cargo en el momento en que deban formularse las cuentas consolidadas y durante los dos ejercicios inmediatamente anteriores. En particular, se presumirá esta circunstancia cuando la mayoría de los miembros del órgano de administración de la sociedad dominada sean miembros del órgano de administración o altos directivos de la sociedad dominante o de otra dominada por ésta. Este supuesto no dará lugar a la consolidación si la sociedad cuyos administradores han sido nombrados, está vinculada a otra en alguno de los casos previstos en las dos primeras letras de este apartado.*

*A los efectos de este apartado, a los derechos de voto de la entidad dominante se añadirán los que posea a través de otras sociedades dependientes o a través de personas que actúen en su propio nombre pero por cuenta de la entidad dominante o de otras dependientes o aquellos de los que disponga concertadamente con cualquier otra persona.*

## **i . Lotutako eragiketak egiteko debekua <sup>60</sup>**

KSL 229.1.a artikuluan xedatzen da kapitalezko baltzuen administratzaileen lehen abstentzio betebeharrak modura sozietatearekin eragiketak, transakzioak, egitea. Arau orokorra da administratzaileak hark kudeatzen duen sozietatearekin ezin dezakeela inolako eragiketarik egin.

Legegileak transakzio hitza erabiltzen du debekatzen diren eragiketak zehazteko, hitz horren esanahia oso zabala delarik. Honakoa, legegileak berariaz erabilitako teknika juridikoa izan da, hala, praktika sozietariotik eratorri daitezkeen egoera desberdinak desleialtasun modalitate honetan barneratu ahal izateko<sup>61</sup>, beraz, transakzioen objektua anitza izan daiteke. Ildo beretik jo du doktrinak<sup>62</sup> ere, eta trafikiko juridikoan eragiketarik ohikoena aktibo sozialen salerosketa, maileguak edo bermeak dira.

Baltzuekin administratzaileak kontratu bat burutzea, autokontrataziotzat hartzen da. Autokontratazioa ez da legez definituriko kontzeptua eta horretan jorratu dira bai jurisprudentzia baita doktrina ere. Auzitegi Gorenak, haren 4992/2001 epaian<sup>63</sup>, zehaztu zuen, autokontratua ematen dela pertsona batek bere buruarekin kontratu bat ixten duenean, hark aldi berean alderdi interesatu eta beste alderdiaren ordezkari modura jarduten duelarik. Alegia, bi adierazpen juridiko konjugatu eta ekonomikoki kontrajarriak egiten dituen borondate bakarra dagoen kasuetan autokontratazioa ematen da.

Ildo beretik, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko maiatzaren 6ko ebazpenak<sup>64</sup> jasotzen du autokontratua dagoela

---

<sup>60</sup> Terminoa PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, "Anatomía...", 54 orr. lanean erabilitakoa da.

<sup>61</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 3794/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 17koa, 4. O.J.: *ciertamente, el término utilizado por el precepto, "transacciones", es deliberadamente amplio e incluye negocios jurídicos cuyo objeto sean prestaciones tales como los servicios de ingeniería contratados.*

<sup>62</sup> JUSTE MENCÍA, J. "Artículo 229...", 398 orr.

<sup>63</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4992/2001 Epaia, 2001eko ekainaren 12koa, 2. O.J.: *autocontrato, o contrato consigo mismo, en la modalidad más genuina (y tachada de más peligrosa por el mayor riesgo de parcialidad) que se da cuando existe una sola voluntad que hace dos manifestaciones jurídicas conjugadas y económicamente contrapuestas (Resolución 9 febrero 1946), es decir, cuando una persona cierra consigo misma un contrato actuando a la vez como interesada y como representante de otra (sentencia de 5 de noviembre de 1956).*

<sup>64</sup> Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko maiatzaren 6ko Ebazpena (2021eko maiatzaren 24ko EBO, 123 zkia.) 2. O.J.: *existe autocontratación cuando una persona interviene en un mismo contrato en su propio nombre y en el de la otra parte contratante o incluso (...) cuando representa a ambas partes en el negocio jurídico.* Zentzu berean jotzen du: Erregistro eta Notariotzen Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko abuztuaren 3ko Ebazpena (2016ko irailaren 23ko EBO, 230 zkia.) 4. O.J.: *auto-contratación (...) se produce cuando una persona interviene en un mismo contrato en su propio nombre y en el de la otra parte contratante o incluso cuando representa a ambas partes en el negocio jurídico.*

pertsona batek kontratu batean bere izenean eta beste alderdiaren izenean parte hartzen duenean zein pertsona bakar batek kontratuko bi alderdiak ordezkatzeko dituen.

Autokontratazioaren baitan beraz, bi egoera aurreikusi daitezke, eta eremu sozietarioan zehazki, beti kontratuaren alderdietako bat administratzaileak kudeatutako baltzua izango da.

Batetik, kontratuaren alderdiak baltzuaren eta hori kudeatzen duen administratzailea izatea. Kasu honetan administratzaileak bi borondateen deklarazioa burutzen du: bai bere kontura pertsona gisa baita sozietatearen kontura, administratzaile gisa esleituak dituen eskumenen baitan, ere. Baltzuaren borondatea plazaratzerakoan, argi ikusten da honakoa, baltzuaren administrazio modua administratzaile bakarra edo solidarioak direnean. Bestetik, autokontratazioaren bigarren modalitatea: pertsona berdin batek kontratuko bi alderdiak ordezkatzeko. Esku artean dugun kasuan, adibidez, administratzaileak hari lotutako pertsona bat eta baltzua ordezkatzeko kontratuan.

Bi aldaera aurreikusten badira ere, horietan ikusten den arazoa bera da: pertsona berak interes kontrajarriak defendatu behar izatea, eraginez, kapitalezko baltzuen administratzaileen sozietatearekiko leialtasun betebeharra kolokan jartzea eta ondorioz, baltzuaren interes onena ez asetzeko arriskua sortzea.

Autokontratuaren eraginkortasunari dagokionean, administratzaileak autokontratazioarako debekua izanik (KSL 229.1.a artikulua), burutzen duen kontratu hori deuseza izango da. Hori oinarritzeko, SJFPZNRen 2021eko maiatzaren 24ko Ebazpena argia da<sup>65</sup>: pertsona batek beste bati ahalmenen edo botereen esleipen orokorra egiteak ez du barne hartzen alderdien interesak aurka dauden eragiketak burutzeko ahal. Interes kontrajartzea dagoenean ordezkartza-ahalorde nahikoa egongo da soilik botere emaileak horretarako baimen berezia eman duenean, edo negozioaren egitura zehatzaren ondorioz argi eta garbi bermatzen denean autokontratuaren inpartzialtasuna edo zuzentasuna

---

<sup>65</sup> Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko maiatzaren 6ko Ebazpena (2021eko maiatzaren 24ko EBO, 123 zkia.), 2. O.J.: *es doctrina consolidada que en la atribución genérica de las facultades o poderes no está comprendido el caso en que en la operación estén en oposición los intereses de una y otra parte. (...) sólo habrá poder de representación suficiente si la persona de quien se reciben los poderes o facultades correspondientes da para ello licencia o autorización especial, o cuando por la estructura objetiva o la concreta configuración del negocio quede «manifiestamente excluida la colisión de intereses que ponga en riesgo la imparcialidad o rectitud del autocontrato» (cfr. respecto de esta última precisión, vid. las Sentencias del Tribunal Supremo de 5 de noviembre de 1956, 22 de febrero de 1958 y 27 de octubre de 1966; así como la Resolución de 2 de diciembre de 1998). En otro caso, el acto realizado sería considerado nulo, sin perjuicio de su ratificación por la persona a cuyo nombre se otorgó.*

arriskuan jartzen duen interes-talkarik ez dela. Bestela, egindako egintza deuseza izango da; hori bai, ahalordea eman duen pertsonak berresteko aukera gordetzen du.

Jurisprudenziaren zein doktrinaren xedea besteren ondasun eta negozioen kudeaketa burutzen dutenek, nagusiaren, *dominus negotii*, interesen asetzea bermatzea da, haien jarduera nagusiaren interesetara zuzentzea, interes pertsonalak funtzio horretan alde batera utzirik<sup>66</sup>.

Hala eta guztiz ere, KSL 229.1.a artikulua berak, interes gatazka sortzen ez dela ulertuaz, abstentzio betebeharrak hori salbuesten du ondoren jasotzen hiru baldintza betetzen diren kasuetan:

Hasteko, eragiketak baltzuaentzat arrunta izan behar du, alegia, sozietatearen estatutu sozialetan jasotzen den objektu sozialaren garapenean barneratzen den transakzioa izan behar du; hala ondorioztatzen da, ostera, debekua ezartzen duen arauak *bezeroekin egiten diren eragiketak* hartzen dituelako ardatz<sup>67</sup>. Hala ere, baltzuaren jarduera erreala ere aintzat hartu behar da.

Jarraian, administratzaile eta baltzuaren artean burutzen den negozioak, sozietatearen bezero batekin burutuko balitz ezarriko liratekeen baldintza berdinetan izan behar du, hots, administratzailea ez eta hirugarren arrunt bat izango balitz bezalako baldintzetan.

Azkenik, hizpide den eragiketak garrantzia txikikoa izan behar du, hots, KSL 229.1.a *in fine* artikuluan jasotzen den bezala, sozietateren ondarearen irudi leiala, finantza egoera eta emaitzak adierazteko informazioa behar ez duena. Kontabilitatearen eremuan barneratzen gara orain. Arauak, eragiketaren garrantzia maila neurtzeko elementu objektibo bat hartu du aintzat, hau da, kontabilitate arauak betetzearen efektuetarako eragiketak duen adierazgarritasuna<sup>68</sup>.

Baldintza horiek bete ezker, KSL 229.1.a artikuluan jasota, administratzaileak hark administratzen duen baltzuaekin eragiketak burutu ditzake, eta, bestela, printzipioz, ezin dezake eragiketarik burutu alderdien arteko interes gatazka dagoelako. Dena dela,

---

<sup>66</sup> Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko maiatzaren 6ko Ebazpena (2021eko maiatzaren 24ko EBO, 123 zkia.), 2.O.J.: *El ordenamiento jurídico trata de garantizar que la actuación de los gestores de bienes y negocios ajenos se guíe exclusivamente por la consideración de los intereses del principal o dominus negotii sin interferencia de los propios del gestor.*

<sup>67</sup> JUSTE MENCÍA, J. "Artículo 229...", 399 orr.

<sup>68</sup> *Ibidem*, 399 orr.



kapitalezko baltzuen administratzaileen leialtasun betebeharraren araudiak debekua gainditzeko aukera aurreikusten du aurrerago aztergai izango den KSL 230.2 artikuluko dispentsaren bidez. Gainontzeko kasu guztietan debekaturik egongo da.

Lotutako eragiketen eraentza ikusirik, esanguratsua izan daiteke ikustea, ordezkatuaren interesen babesa ordezkariaren interes pertsonala bazterturik, ez dela sozietateen zuzenbidera mugatzen den kontua, baizik eta zuzenbide pribatuaren eremu anitzetan ikus daitekeen gaia dela alderdi bien arteko betebeharraren fiduziariorik izaterakoan.

Merkataritza zuzenbidearen esparruan, komisio kontratuan halako obligazio bat ezartzen zaio komisio hartzaileari MK 267.I artikuluan<sup>69</sup>, autosarreraren debeku gisa: ezin komisio hartzailek ezin dezake, ez beretzat, ezta hirugarren batentzat ere, erosi saltzea agindu zaion hori. Alderantziz ere, ezin dezake saldu erostea agindutako hori. Halako eragiketa egiteko duen aukera bakarra, komisio emaileak, alegia, nagusiak, horretarako baimena ematea da; kapitalezko sozietateen eremuan, KSL 230.2 artikuluan jasotako dispentsa.

Zuzenbide zibilerako ezker, trafikoko ekonomikoaren baitan KZ 1459 artikulua salerosketa bidez ondasun jakin batzuk erosteko debekua ezartzen die egoera jakinean aurkitzen diren subjektuei, besteak beste: mandatu hartzaileak hark administratu edo besterendu beharreko ondasunak ezin ditzake erosi, KZ 1459.2 artikuluekin bat, edo albazeak haren ardurapean jarritako ondasunak (KZ 1459.3 artikulua).

Familia zuzenbideko erakunde babesle gisa, guraso boterearen titular diren gurasoei, legez haien seme-alaben ordezkariak dagokie (KZ 162.I artikulua), baina, aldi berean, salbuespenak ezartzen dira botere horren egikaritzan, eta horien artean, guraso eta seme-alaben arteko interes gatazka egotea jasotzen da (KZ 162.2 artikulua). Irtenbidea, KZ 163 artikuluan jasotzen da, beste gurasoak haurren ordezkariak burutzea, hark interes gatazkarik ez duen kasuetan, eta bestela, eragiketa jakina burutzeko haurra ordezkari duen defendatzaile judizialaren izendapena. Ildo beretik jotzen du araudiak tutoretzaren kasuan ere, KZ 217.5 eta 220 artikuluetan.

---

<sup>69</sup> MK 267.I artikulua: *Ningún comisionista comprará para sí ni para otro lo que se le haya mandado vender, ni venderá lo que se le haya encargado comprar, sin licencia del comitente.*

**ii. Sozietatearen izena erabili edo sozietatearen administratzaile izaera baliatu administratzailearen eragiketa pribatuetan behar ez bezala eragiteko debekua<sup>70</sup>**

Eragiketa pribatuetan, baltzuarenak ez diren horietan, behar ez bezalako influentzia izan ez dezan debekua ezartzen zaio administratzaileari, horretarako, baltzuaren izena erabiltzeko edo sozietatearen administratzaile izaera baliatzeko abstentzio betebeharra ezarririk (KSL 229.1.b artikulua). Eragiketa pribatu horiek administratzailearen edo hirugarren baten interesean burutu daitezke<sup>71</sup>. Honako debeku hau ez errespetatzea administratzailearen ordezkapen abusua litzateke<sup>72</sup>.

Ulertzen da baltzuaren izena erabiltzeak edo kargua aipatzeak administratzaileari eragiketa pribatu horren arrakasta bermatzeko aukera handiagoa ematen diola, adibidez, kontratuko baldintzak hobetzeko bidea irekirik.

Arauaren xedeari erreparatu ezker, kontsidera daiteke legegileak baltzuaren izena babestea duela xede, hori baltzuaren interesen mesedetan baino erabilia izan ez dadin. Gauzak horrela, administratzailearen, pertsona gisa, izaera eremu profesionalera mugatzea bilatzen da, helburu partikularrak alde batera utzirik eta hark izaera horri probetxurik ez ateratzea.

Jomuga hori bada ere, trafiko ekonomikoaren baitan hori lortzeko zailtasun handiak somatzen dira, batez ere, administratzaileak burutuko dituen eragiketa pribatu horiek baltzuaren hornitzaile, bezero edo ohiko kontratugileak diren kasuetan. Beste modu batera esanda, merkatuan, batez ere baltzua aritzen den horretan, ezaguna izango da pertsona jakina baltzu zehatzaren administratzailea dela. Hortaz, inklusio, ez da beharrezkoa izango ere administratzaileak berak bere izaera aipatzea. Halakoetan,

---

<sup>70</sup> Interes gatazka egoerak ekiditeko abstentzio betebeharraren honen izaera erlatiboaren inguruan zalantzak agertzen dira doktrinaren eremuan. Dispensaezintzat hartzen dute besteak beste: GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 230. Régimen de imperatividad y dispensa”, *Comentario de la Ley de Sociedades de Capital, Tomo III, La Junta General, la administración de la sociedad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 3177 orr. eta JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 230. Régimen de imperatividad y dispensa.”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 417 orr. Aldiz, debeku dispensagarrien artean jasotzen dute: PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “Anatomía...”, 54 orr. eta VALPUESTA GASTAMINZA, Eduardo, *ob. cit.*, 601 orr.

<sup>71</sup> ARIAS VARONA, F. “Régimen general del deber de lealtad de los administradores. Obligaciones básicas y conflictos de interés”, ARIAS VARONA, F. eta RECALDE CASTELLS, A. (Koord.) *Comentario práctico a la nueva normativa de Gobierno Corporativo: Ley 31/2014, de reforma de la Ley de Sociedades de Capital*, Dykinson, Madrid, 2015, 91 orr.

<sup>72</sup> VICENT CHULIÁ, Francisco, *ob. cit.*, 1215 orr.

administratzaileak ez luke baltzuekiko modu desleialean jardungo (KSL 229.1.b artikulua), bera pertsonalki ez delako horretaz baliatu eta arauak ekidin nahi duen efektua modu berdinean lor dezake. Nolabait, administratzaileak burutzen duen negozioaren beste alderdiak, haren izaera ezagutzen duenez, konfiantza ezar dezake izaera horretan eragiketa burutzerakoan. Ondorioz, arauaren izpiritua bermatzeko zailtasun handiak sortzen dira merkatuaren funtzionamendua eta errealitatea direla eta.

Aldiz, administratzaileak baltzuekin inolako harremanik ez duen pertsona batekin kontratatu ezker, litekeena da hark ez ezagutzea administratzailearen izaera, eta orduan, kasu horietan, arauak duen xedea lortzeko aukera nabarmenagoa da, arauaren prebentziozko izaera hori beterik. Honela, administratzaileak bere negozio pribatuan influentzia lortu nahi ezker, beharrezkoa izango litzateke hark bere kargua adieraztea edo baltzuaren izena baliatzea modu espresoan eta horrek bai, leialtasun betebeharraren urraketa ekarriko luke, KSL 229.1.b artikuluko abstentzio betebeharra ez betetzeagatik.

Orobat, administratzaileak baltzuaren izena erabiltzeak etorkizunean haren izen ona kaltetzea ekar dezake, batez ere, administratzaileak burutzen duen negozio hori hitzartutako moduan betetzen ez bada administratzailearen erruz. Gerta daiteke administratzaileak, pertsona fisiko gisa modu pribatuan hirugarren batekin kontratu bat egitea kontratazioa burutzeko baltzuaren izena erabiliaz, eta oster, kontratua exekutatzekoan administratzailea denaren ez betetzea gertatzea. Halako egoeraren aurrean, kontratuko beste alderdiak sozietatearekiko mesfidantza izan dezake kontratazioan haren izena baliatu baita. Horrek, etorkizun batean negozioak burutzeko zailtasunak ekar diezazkioke baltzuari, merkatuan fidatzekoa ez den pertsonatzat hartzen delako. Egoera hori emateko arriskurik handiena sortuko da administratzaileak kontratatzen duen pertsona baltzuaren merkatuan aritzen den subjektua den kasuetan.

### **iii. Helburu pribatuetarako sozietateren aktiboa erabiltzeko debekua**

KSL 229.1.c artikulua kapitalezko baltzuen administratzaileei sozietatearen aktiboa xede pribatuetarako erabiltzea debekatzen die, informazio konfidentziala barne.

Ezertan hasi aurretik, abstentzio betebeharraren objektua zer den definitu beharra dago, alegia, sozietatearen aktiboaren kontzeptuaren baitan zer barneratzen den.

Horretarako, merkataritzako erakundeen kontabilitatearen<sup>73</sup> inguruko araudi sustantibora joko dugu irizpide objektibo gisa. Merkataritza Kodeko 36.1.a artikuluari jarraiki, balantzean barneratu beharreko aktiboak ondorengoak dira: ondasunak, eskubideak eta enpresak ekonomikoki kontrolaturiko bestelako baliabideak, aurreko egitateetatik eratorriak eta etorkizunean enpresak haiengandik etekin ekonomikoak lortzeko aukera dituenak.

Aktibo sozialaren parte bezala jasotzen da informazio konfidentziala (KSL 229.1.c art.). Konfidentziasuna sekretuarekin parekatu daiteke, baina, legeak ez du inolako zehaztapenik egiten halako izaera duen informazioa zein den ezagutzeko. Hala, Auzitegi Gorenak, hiru ukanbehar ezartzen ditu konfidentziasun betebeharra egon dadin: informazioaren izaera konfidentziala izatea, ezagutza karguaren egikaritzaren ondorioa izatea eta hori zabaltzea interes soziala edozein modutan kaltetzeko egokia izatea<sup>74</sup>.

Lehen ukanberrak ezer gutxi argitzen duen neurrian, informazioa konfidentzial izatea, hori administratzailearen eskumenen egikaritzan gorde beharreko zuhurtasun modura ulertu behar da, hala administratzaileek izaera horren gainean egin dezaketen epai akatsak ekiditeko<sup>75</sup>.

Debekatzen den portaera aktibo sozialaren erabilera pribatua egitea da. Erabilera pribatua interes pribatuarekin parekatuaz, *contrario sensu* interpretatu eta interes soziala ez den beste edozein izango da, jomuga pribatu horren edukia anitza izan daitekeelarik. Esaterako, helburu pertsonalak edo baltzuaz besteko helburu profesionalak. Leialtasun betebeharra urratua izan dadin ez da eskatzen informazio hori pertsona jakin bati helarazi behar izatea. Debekuaren gakoa da datu horiek helburu pribatuekin erabiltzea. Hala, bilatu nahi da baltzuaren aktiboa interes sozialaren erdiespenera zuzentzea.

Debeku honen eremuan, aintzat hartu behar da ere KSL 228.b artikuluan ezarritako leialtasun betebeharraren oinarritzko obligazioa: administratzaile karguaren egikaritzan sarbidea izandako informazioaren inguruko sekretua gordetzea. Funtsean,

---

<sup>73</sup> Kapitalezko baltzuak merkatariak diren neurrian, KSL 2 artikulua, MK 25.1 artikuluekin bat, enpresari orok bezala kontabilitate ordenatu bat aurrera eramateko betebeharra dute. KSL 253 artikuluekin bat, urteko kontuak formulatzeko obligazioa dute administratzaileek, eta KSL 254.1 artikuluari jarraiki, aurkeztu beharreko urteko kontuen edukia osatzen du balantzeak, eta balantzearen aldagai nagusiak aktiboa, pasiboa eta ondare garbia dira (MK 35.1 artikulua).

<sup>74</sup> Auzitegi Gorena, Zibil gela, 7170/2011 Epaia, 2011ko urriaren 4koa, 2. O.J.

<sup>75</sup> Auzitegi Gorena, Zibil gela, 7170/2011 Epaia, 2011ko urriaren 4koa, 2. O.J.

administratzaileak informazio konfidentziala helburu pribatueterako erabiltzean, litekeena da baltzuari dagokion informazioa helarazten aritzea eta beraz sozietatearekiko leialtasuna bitan urratuko du bi modu desberdinetara: batetik, KSL 228.b artikuluko oinarrizko obligazioa urratuaz eta bestetik, KSL 229.1.c artikuluko abstentzio betebeharra ez errespetatzeagatik.

#### **iv. Sozietatearen negozio aukeren aprobetxamendurako debekua**

Kapitalezko baltzuen administratzaileek ezin dezakete sozietatearen negozio aukerez aprobetxatu hori burutzeak konpainiaren eta administratzailearen arteko interes gatazka egoera eragiten baitu (KSL 229.1.d artikulua). Abstentzio betebeharraren atzean ere, antzeman daiteke leialtasun betebeharra eraentzen duen funtsa: interes soziala administratzailearen interesaren aurretik kokatzea, AGE 5407/2014<sup>76</sup>.

Abstentzio betebeharraren honen gakoak baltzuaren negozio aukerak zein diren eta zein ez diren zehaztea da, leialtasun betebeharraren urraketa zein kasuetan gertatzen den eta noiz ez zehaztu ahal izateko. Legezko xedapenak ez duenez inolako argibiderik eskaintzen, jurisprudentiaren ikuspuntutik KSL 229.1.d artikuluan xedatutako debekuak bi aldaera nagusi ditu, praktikaren erakusle izanik biak ala biak.

Hasteko, gerta daiteke, administratzailea karguan dagoen bitartean berariaz etorkizun batean, kargugabetua denean, negozio aukera baten aprobetxamendua prestatzea; nolabait, aurretiaz prestatutako plan bat exekutatu. Kasu horietan, Auzitegi Gorenak ulertzen du, baltzuaren negozio aukeraren aprobetxamendua pertsona jakina administratzailea ez zenean gertatu bada ere, haren portaera baltzuarekiko desleiala izan dela prestakuntza dela eta<sup>77</sup>.

Identifikaturiko beste aldaera bat honako hau da: praktikoki sozietatearen aktiboari dagoeneko dagozkion negozio aukeren bereganatzea administratzaile

---

<sup>76</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 5407/2014 Epaia, 2014ko azaroaren 11koa, 5. O.J.: *El patrón de conducta que exige el ordenamiento societario, se corresponde al modelo de "un ordenado empresario" (art. 225.1 LSC) que supone entre otros deberes, el de lealtad y el de fidelidad (art. 226 LSC) como estándar del "representante leal". Los administradores deben desempeñar su cargo como un representante leal en defensa del "interés social", por lo que están obligados a anteponer en todo momento los intereses de los accionistas a los suyos propios. Este deber de lealtad, pese a ser un estándar general, la ley ha cuidado de tipificar alguna de sus manifestaciones más importantes, entre ellas, y, en lo que aquí interesa, la "prohibición de aprovechar oportunidades de negocio" (art. 228 LSC - art. 127 ter 2 LSA).*

<sup>77</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 6150/2012 Epaia, 2012ko irailaren 3koa, 3. O.J.: *la intencionada preparación del aprovechamiento de la oportunidad de negocio por parte del administrador, mientras lo era, aunque no logre su propósito hasta después de dejar de serlo, en ejecución del plan concebido.*

izandakoarengandik<sup>78</sup>. Hala kontsideratua izateko, fede onaren aurkako inguruabar jakinak tartean egotea eskatzen da.

Doktrinaren eremuan negozio aukeren sailkapen desberdinak egin dira; horien artean, esaterako PORTELLANO DÍEZ<sup>79</sup> autorearen iritziaren arabera, baltzuari dagozkion negozio aukerak bi dira:

Batetik, jarduera sozialak garatzeko zein burutzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren aukerak. Hori neurtzeko, egileak dio, administratzaileak duen ezagutzaren arabera uste badu kontratu, negozio, inbertsio edo delako hori egitea komenigarria dela interes soziala asetzeko, ulertu behar da negozio aukera hori baltzuari dagokiola. Aldiz, ezagutza bera izanik, kontrako ondoriora iristen bada, alegia, ez dela egokia interes sozialarentzat, orduan, negozio aukera hori ez da baltzuarena izango eta leialtasun betebeharra urratu gabe administratzaileak aprobetxatu dezake.

Bestetik, baltzuaren negozio aukerak diren horiekin jarraituz, konpainiak, batzar nagusiaren edo administrazio organoaren bidez, negozio jakin batekiko interesa adierazi badu, hori ere harena dela ulertzen da. Eremu honetan, ez da beharrezkoa izango ezein organo sozialak inolako erabaki edo akordiorik hartu izana, nahikoa izango da aukeraren inguruko azterketa edo analisisia egin izana<sup>80</sup>.

Nolanahi ere, baltzuak, edozein arrazoi dela medio, azkenean kontratua edo negozio jakina burutzeari uko egiten badio, administratzaileari aukera aprobetxatzeko bidea irekitzen zaio. Aukerari uko egiten ez zaion heinean, KSL 228.e artikuluan jatorria duen abstentzio betebeharraren arau orokorrak indarrean jarraitzen du, hots, baltzu eta administratzaile artean sor daitekeen edozein interes gatazka egoerak ekiditeko betebeharra<sup>81</sup>.

Balorazio horiek egiteko, beharrezkoa izango da ere baltzuaren egoera ekonomikoaren, baliabide pertsonal eta materialen zein enpresa arloko beste irizpideen balioespena egitea, erabaki egoki eta osatu bat hartzeko. Gerta daiteke eta, berez,

---

<sup>78</sup> Auzitegi Gorenaren, Zibil Gela, 6150/2012 Epaia, 2012ko irailaren 3koa, 3. O.J.: *Otro de los supuestos es el de la apropiación, en determinadas circunstancias contrarias al modelo de buena fe, por quien fue administrador de las oportunidades de negocio que se considera ya pertenecían prácticamente al activo de la sociedad.*

<sup>79</sup> PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores de evitar situaciones de conflicto de interés*, Estudios de Derecho Mercantil, Civitas-Thomson Reuters, 2016, 135 orr.

<sup>80</sup> MARTÍNEZ-CORTÉS GIMENO, Jesús, "El deber de lealtad de los administradores de las sociedades no cotizadas", *Cuadernos de derecho y comercio*, Dykinson, Madrid. 65 zkia. 2016, 65 orr.

<sup>81</sup> *Ibidem*, 66 orr.

objektiboki, interes sozialarentzat komenigarria den negozio aukera bat izatea baina, sozietateak ez izatea baliabide ekonomiko nahikorik horri aurre egiteko eta une horretan mailegu edo kreditu bat eskatzea ez izatea erabakirik egokiena.

*Ex ante* negozio aukeren bereizketa egiteak ekartzen dituen zailtasunak direla medio, komenigarria da aukeraz baliatzeko asmoa duen administratzaileak gainontzeko administratzaileei eta bere kasuan, administrazio kontseiluari, edo batzar orokorrari administratzaile bakarra den kasuetan, komunikatzea egoerak alderdi bien arteko interes gatazka sortzen baitu<sup>82</sup>; hala, KSL 229.3 artikuluko betebeharra beteko luke.

Negozioen izaera eta ezaugarriak direla eta, horiek ez dira egun batetik bestera burutzen. Ohikoena izaten da alderdiek negozio jakinak dituen ezaugarriak, onurak eta arriskuak, besteak beste, aztertzea eta kontratuaren baldintzen inguruan negoziaketak egitea ahalik eta baldintzarik egokienak lortzeko, alderdien interesetara egokitzearren. Hori dela eta, gerta daiteke baltzu bateko administratzaileak beste pertsona batekin negoziaketei ekitea, baina horiek ez amaitzea kargua utzi duelako edo kargugabetua izan delako.

Eremu horretan, aipagarria da Auzitegi Gorenaren 6150/2012<sup>83</sup> epaia KSL 229.1.d artikuluko betebeharraren denborazko eraginkortasunari dagokionean: *la prohibición de aprovechar oportunidades de negocio generadas por la sociedad (...) desaparecen cuando se extingue la relación fiduciaria que liga al administrador con aquella. (...) La expuesta nos parece una conclusión excesivamente estricta, por cuanto el carácter fiduciario de la relación que vincula al administrador con la sociedad - en la que el estándar de buena fe cumple importantes funciones como regla de integración de su regulación - determina que, en ciertas circunstancias, aquel, no obstante haber cesado en el cargo y estar facultado, como regla, para emprender y desarrollar actividades en competencia con ésta, deba observar respecto de ella ciertos deberes de conducta impuestos por dicha buena fe.*

Horrenbestean, fede onaren printzipioak galdaturik, administratzaileak, behin kargua utzita, oraindik ere ezin ditzake baltzuaren negozio aukerak aprobetxatu iraungitako harremanetik ondorio juridikorik jasan gabe. Hori azaltze aldera, aipatu berri den epaiak jasotzen du lehiaketa publiko bidez esleitu den kontratu publiko baten

---

<sup>82</sup> ARIAS VARONA, F., *ob. cit.*, 92 orr.

<sup>83</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 6150/2012 Epaia, 2012ko irailaren 3koa, 3. O.J.

kasuan kargugabetzea eman zenetik 6 hilabeteko epea igarotzea nahikoa izan zela, administratzaileak negozio aukera horren aprobetxamendua desleial ez kontsideratzeko, beti ere, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan izanda. Zirkunstantzia horien artean, besteak beste, eskainitakoaren eta itundutakoaren arteko desberdintasuna eta baltzuaren hainbat langileek kontratuaren negoziaketan parte hartzea jasotzen dira<sup>84</sup>.

Aldiz, beste kontratu publiko baten kasuan, Auzitegi Gorenak epai berean, AGE 6150/2012, adierazi zuen inguruabarrak antzekoak baziren ere, nagusiki, kargugabetzetik denbora gutxi igaro izana, kontratazio modalitatea konkurtso publikoa izana, eta kontratatzailea zen erakunde publikoak administratzaileari mezu elektronikoko bat helarazi izana baltzuaren zerbitzuak kontratatzeko interesa adieraziaz, leialtasunaren aurkakotzat hartu zen administratzaile izandakoak prozesuan parte hartzea<sup>85</sup>. Azken inguruabar hori baltzuarekin burututako negoziaketaren fruitu onen erakusle izan zen eta eraginez, administratzaile eta baltzuaren artean iraungitako harremanean barneratzen den fede onaren printzipioaren aurka aprobetxatu zuen negozio aukera.

Horrenbestean, esan daiteke denborazko epe zehatz bat ezartzea baino, kontratuetako alderdien fede onean oinarrituta kasuan kasuko inguruabarrak aztertu behar direla.

Amaitzeko, eta aurreko abstentzio betebeharrean adierazi den modura, arau honen urraketak, beti ez bada ere, beste betebeharrak baten urraketa ekarriko du: informazioaren zabaltzea (KSL 228.b artikulua), edo informazio konfidentzialaren erabilera helburu pribatuetarako, (KSL 229.1.d artikulua). Funtsean, administratzaileak negozio aukera jakina administratzaile karguaren egikaritzan ezagututakoa izango da, informazio hori

---

<sup>84</sup> Auzitegi Gorenak, Zibil Gela, 6150/2012 Epaia, 2012ko irailaren 3koa, 4. O.J.: *la adjudicación del contrato por parte de Instituto de Fomento de Andalucía (Eurocei) a una sociedad vinculada a don Rafael, no puede considerarse la apropiación de una oportunidad de negocio integrada, de hecho, en el activo de The Cluster Competitiveness Group, SA. En efecto, el trámite de la contratación - concurso público -, la intervención en él, además del demandado, de dos empleados de la sociedad, lógicamente conocedores de los detalles de la situación, el tiempo transcurrido desde que se había producido el cese del administrador - seis meses - y las diferencias entre lo ofertado y lo pactado, no permiten entender que el demandado se hubiera realmente apoderado de una oportunidad de negocio de la demandante.*

<sup>85</sup> Auzitegi Gorenak, Zibil Gela, 6150/2012 Epaia, 2012ko irailaren 3koa, 4. O.J.: *Otra cosa acontece con los contratos celebrados con Consorci de Promoció Comercial de Catalunya (Copca) por don Rafael y la sociedad a él vinculada, pues - pese a que el sistema de contratación fuera el mismo y hubiera también diferencias entre lo ofertado y lo finalmente convenido -, las adjudicaciones se produjeron escaso tiempo después del cese y, sobre todo, la sentencia relata que, el quince de junio de dos mil cinco, Copca remitió un correo electrónico al administrador demandado "dando muestras del interés de dicho organismo a aceptar los servicios de la empresa actora, por más que se tratara de una adjudicación por el procedimiento de concurso público ". Esta última circunstancia es evidencia de que, por la razón que fuera, la negociación con la demandante había llegado a buen puerto e identifica un supuesto de apropiación contraria al estándar de buena fe integrada en la relación recientemente extinguida, que constituye fuente de responsabilidad del administrador demandado, de conformidad con la doctrina expuesta.*



baltzuari dagokio hortaz. Egoera horretan, administratzaileak negozio jakinaren inguruko baldintzak eta ezaugarriak probetxu pribaturako erabiltzen ariko da. Kontuan izanik zein den eskaria hark baloratu dezake zein den baltzuak egin dezakeen eskaintza eta berak egin dezakeena. Edo informazioaren hartzailea administratzaileari lotutako pertsona bat izan daiteke, eta baltzuak egiten dituen eta egingo dituen eskaintzen nondik norakoak jakinaraztea. Horrela, kontratua lortzeko negoziaketetan baltzua desabantaila egoeran kokatuko litzateke.

#### **v. Kanpo ordainsaria jasotzeko debekua<sup>86</sup>**

Kapitalezko baltzuen administratzaileek kargua egikaritzeagatik ordainsaria<sup>87</sup> jasoko dute baltzuko estatutu sozialek hala aurreikusi ezker (KSL 217.1 artikulua). Bestela, KSL 217.1 artikuluekin bat, kargua doakoa izango da. Edozein kasutan ere, sozietatea edo sozietatea parte den sozietate taldea ez den hirugarren batengandik kargua burutzeari lotutako abantailak lortu edo ordainsaria jasotzeko debekua ezartzen zaio administratzaileari, salbu horiek kortesia hutsekoak direnean (KSL 229.1.e artikulua).

Abstentzio betebeharraren honen bidez legeak ordaintzailearen interesa bere osotasunean interes sozialarekin bat ez datorrenean potentzialki sor daitekeen gatazka ekiditea du helburu<sup>88</sup>. Interes kontraktotasun horren aurrean debekuaren funtsa leialtasun betebeharraren eraentzen duen *ningún conflicto* araua da<sup>89</sup>.

Esperientziari erreparatu ezker, hirugarren hori baltzuaren bazkide bat edo bazkide talde bat izan ohi da<sup>90</sup>. Honela, administratzailearen ordainsariaren zati bat baltzuaren bazkideen zati batek modu deszentralizatuan diseinatuko du eta ordainsari dualitatea egongo. Ondorioz, leialtasun berri bat sortzeko edo indartzeko arriskua sortzen da, eta horrek administratzaileak baltzuarekiko duen leialtasun betebeharrarekin talka egin dezake. Azken finean, administratzaileak ordaintzailearen jarraibideei zein

---

<sup>86</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ egilearen terminología erabiltzea erabaki dut, PAZ-ARES, José Cándido, “La anomalía de la retribución externa de los administradores. Hechos nuevos y reglas viejas”, *Indret: Revista para el análisis del derecho*, 1 zkia., 2014ko urtarrila, lanean jasotzen duen moduan (hemen ikusgai: <https://indret.com/wp-content/themes/indret/pdf/1037.pdf>). Kanpo ordainsariaren alboa, bere kasuan, *barne ordainsaria* egongo da, hau da, baltzuak administratzaileari administratzaile bezala ordaintzen dion ordainsaria.

<sup>87</sup> Ordainsariaren modalitateak, zenbatekoa eta bestelako ezaugarriak KSL 217, 218 eta 219 artikuluetan jasotzen dira.

<sup>88</sup> JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 229...”, 404 orr.

<sup>89</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “La anomalía...”, 6 orr.

<sup>90</sup> *Ibidem*, 4 orr.

lehetasunei men egiteko egoera ikusten da, hala laburbilduz arriskua: *quien paga, manda*<sup>91</sup>.

Halako ordainketak gertatzeak, administratzailearen beraren independentzia kolokan jartzen du, KSL 228.d artikuluan leialtasun betebeharraren oinarritzko obligazio gisa jasoa. Independentziak garrantzia berezia hartzen du administratzaileen karguaren egikaritzan, KSL 226 artikulua haien diskrezionalitatea onartzen baitu negozio eta estrategia erabakien esparruan. Funtsean eskertza arriskua, *peligro de agradecimiento*, ekidin nahi da arauaren bidez, horrek administratzailearen independentzia kolokan jartzera dator eta<sup>92</sup>. Eskertza independentzia eta inpartzialtasun urraketetan gauzatu daiteke, horiek, modu kontziente edo inkontzientean izan daitezkeelarik, azkenak arriskutsuenak izanik. Baltzuaren kudeatzaileak bere jardueraren gidari den interes sozialaren norabidea galtzeko arriskua sortzen du. Ondorioz, esan liteke administratzaileak haren ordaintzailearekiko zorra sentitzen duen neurrian, haren aldekoak, edo behintzat haren aurkakoak ez diren, erabakiak hartzeko joera izango duela, interes soziala alboratuz.

Baltzuaren administrazio modua administrazio kontseilua den kasuetan, gerta daiteke kide batzuek hirugarren baten aldeko ordainsaria jasotzea, eta beste batzuek aldiz ez. Horrek, ordainsaria jasotzen duten administratzaileen baltzuarekiko leialtasun betebeharra kolokan jartzeaz beste, kontseiluaren barne funtzionamendua asaldatu dezake, horrek *balcanización del consejo* delako gatazka sortu dezakeelarik<sup>93</sup>. Gatazka horrek inplikatu luke, nolabait administrazio kontseiluaren baitan bi talde banatu edo gehiago sortzea, hau da, kanpo ordainsaria jasotzen dutenak eta jasotzen ez dutenak. Hala, administrazio kontseilua apurtuko litzateke kontseilukide desberdinen arteko mesfidantza sortzeko aukerarekin baita susmoak sortzeko posibilitatearekin ere. Ondorio horiek guztiek, baltzuaren funtzionamenduaren eta ibilbidearen gainean eragina izango dute, nola ez, eta administrazio organoaren inguruko erabakiak hartu behar izatea baltzuaren funtzionamendu arrunta zuzentzeko. Berdina gertatuko litzateke administratzaile mankomunatu eta solidarioen kasuetan.

Sozietate kapitalisten administratzaileei halako abstentzio betebeharra ezartzearen atzean egon daitezkeen arrazoen artean, administratzaileek, kargua dela eta, dituzten

---

<sup>91</sup> *Ibidem*, 7 orr.

<sup>92</sup> *Ibidem*, 9 orr. Ildo beretik: PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores...*, 115 orr.

<sup>93</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, "La anomalía...", 37 orr.

eskumenen izaera eta horien bidez hirugarrenen aurrean duten eraginkortasuna aurkitzen dira. Ordezkaritza hori, baltzu jakinaren estatutu sozialetan KSL 210 artikuluan jasotako administrazio modalitateen arabera izango da, KSL 233 artikuluan ezarritako moduan<sup>94</sup>.

Hori abiapuntu izanik, eta edozein dela ere baltzuak hautatutako administrazio modalitatea, KSL 234.1.I artikulua xedatzen du, administrazio organoaren ordezkariak boterearen esparrua baltzu jakinaren estatutu sozialetan zehaztutako objektu sozialean barneratzen diren egintza guztietara zabaltzen dela. Ezarritako ordezkariak ahalmenen mugapenak, Merkataritza Erregistroan inskribatzen badira ere, ez dira hirugarrenen aurrean aurkajargarriak izango (KSL 234.1.II artikulua).

Honela, KSL 234.2 artikuluekin bat, baltzuekin fede onez eta erru larririk gabe kontratatu duen hirugarrena babesturik gelditzen da, baltzua harekiko obligaturik geratuko delako. Are gehiago, sozietate jakinaren objektu soziala osatzen duen egintza ez den kasuetan ere, baltzua obligaturik geratuko da (KSL 234.2 *in fine* artikulua).

Aztertzen ari garen debekutik kortesia hutseko arretak baino ez dira salbuesten (KSL 229.1.e *in fine* artikulua). Kortesiaren esparruaren baitan barneratzen diren ordainketak, usadioen arabera neurtu beharko dira<sup>95</sup>. Irizpide objektibo bat ezartze aldera, kontsideratzen da balio txikikoak direla eta hori zehazteko ohikoa izaten da, baltzuek

---

<sup>94</sup> KSL 233 artikulua: *1. En la sociedad de capital la representación de la sociedad, en juicio o fuera de él, corresponde a los administradores en la forma determinada por los estatutos, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.*

*2. La atribución del poder de representación se regirá por las siguientes reglas:*

*a) En el caso de administrador único, el poder de representación corresponderá necesariamente a éste.*

*b) En caso de varios administradores solidarios, el poder de representación corresponde a cada administrador, sin perjuicio de las disposiciones estatutarias o de los acuerdos de la junta sobre distribución de facultades, que tendrán un alcance meramente interno.*

*c) En la sociedad de responsabilidad limitada, si hubiera más de dos administradores conjuntos, el poder de representación se ejercerá mancomunadamente al menos por dos de ellos en la forma determinada en los estatutos. Si la sociedad fuera anónima, el poder de representación se ejercerá mancomunadamente.*

*d) En el caso de consejo de administración, el poder de representación corresponde al propio consejo, que actuará colegiadamente. No obstante, los estatutos podrán atribuir el poder de representación a uno o varios miembros del consejo a título individual o conjunto.*

*Cuando el consejo, mediante el acuerdo de delegación, nombre una comisión ejecutiva o uno o varios consejeros delegados, se indicará el régimen de su actuación.*

<sup>95</sup> JUSTE MENCÍA, J. "Artículo 229...", 405 orr.

haien erregelamenduetan, administratzaileek jaso ditzaketen oparien zenbateko maximoa zehaztea<sup>96</sup>.

Amaitzeko, gainontzeko kasuetan egin den moduan, aztergai dugun debekua zuzenbide pribatuko beste erakunde batzuekin lotzearren, ikus daiteke mandatuaren legezko eraentzak ere antzeko debekua ezartzen duela Kode Zibileko 1720 artikuluan<sup>97</sup>. Hala, mandatu hartzaile orok, mandatua dela eta jasotako guztia abonatzeaz beste, mandatua gauzatuz jasotako guztia ere abonatu behar dio mandatu-emailari.

#### **vi. Lehia egiteko debekua**

Interes gatazkak ekiditeko betebeharraren barnean, kapitalezko baltzuen administratzaileei ezartzen zaien azken abstentzio betebeharra KSL 229.1.f artikulua gordetzen du: administratzaileari hasteko, sozietatearekin lehia eraginkorra, egungoa edo potentziala, dakarten norberaren edo besteren konturako jarduerak egitea debekatzen zaio eta jarraian, beste edozein moduren bidez sozietatearen interesekin etengabeko gatazkan kokatzeko debekua. Debeku honek interes gatazka iraunkorrak definitzen ditu<sup>98</sup>.

Esku artean dugun abstentzio betebeharraren berezitasuna aurretik aztertutako horien aldean, duen izaera iraunkorra da<sup>99</sup>. Alegia, administratzailearen eta baltzuaren artean sortzen den interes gatazka ez da koiunturala, egintza edo negozio juridiko jakin bat burutzean gertatzen dena, baizik eta iraunkorra zein egiturazkoa eta haren ondorioak denboran zehar modu jarraituan proiektatu daitezke<sup>100</sup>.

Jarduera horren iraunkortasuna zehazteko, iraupenari erreparatzen zaio, beraz, eskatzen da jarduera denboran zehar luzatzea eta hortaz, isolatua edo aldizkakoa ez izatea. Aintzat izan, aldizkakoa izango balitz, agian, administratzailearen aldetik baltzuaren

---

<sup>96</sup> MARTÍNEZ-CORTÉS GIMENO, Jesús, *ob. cit.*, 66 orr.

<sup>97</sup> KZ 1720 artikulua: *Todo mandatario está obligado a dar cuenta de sus operaciones y a abonar al mandante cuanto haya recibido en virtud del mandato, aun cuando lo recibido no se debiera al segundo.*

<sup>98</sup> VICENT CHULIÁ, Francisco, *ob. cit.*, 1216 orr.

<sup>99</sup> GARCÍA GARCÍA, E., “Artículo 229...”, 3165 orr. eta MONTULL URQUIJO, Jorge “El deber del administrador de evitar situaciones de conflicto de interés: la prohibición de competencia”, *Revista Lex Mercatoria (RLM)*, 7 zbk., 2017, 78 orr.

<sup>100</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 3794/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 17koa, 8. O.J.: *la prohibición de desarrollar actividades que, de cualquier otro modo, le sitúen en un conflicto permanente con los intereses de la sociedad. Ambas conductas, a diferencia de otras previstas en los anteriores apartados del art. 229.1 LSC, presentan unos caracteres comunes, fundamentalmente el de no consistir en actuaciones concretas o episódicas, sino en una situación duradera, de carácter estructural, que puede proyectar sus efectos de forma continuada en el tiempo.*

negozio aukera baten aprobetxamenduaren aurrean egongo ginatekeela, KSL 229.1.d artikuluan jaso portaera debekatu modura.

Ordenamendu juridikoak halako abstentzio betebeharra aurreikusiko ez balu, administratzailea lehiatzen egongo litzateke kudeatzen duen baltzuekin, eta biak ala biak, merkatu-segmentu berdinerazuzenduko lirateke<sup>101</sup>. Hori bai, lehia desorekatua litzateke administratzaileak berak kudeatzen duen baltzuaren informazioarekin jokatu lukeelako.

Legezko xedapenak administratzailearen abstentzio betebeharra ezartzen du, administratzaileak jardura lehiakorrak bere kontura zein beste baten kontura burutzen dituenean.

Bere kontura jardungo du, adibidez, enpresari indibidual modura jardutean. Aldiz, beste baten kontura ariko da baltzuaren merkatuko lehiakide baten kontura jardutean, zehazki, beste baltzu baten administratzaile izatean, lehiakide baten bazkide nabarmena denean eta erakundearen kontrola eskuratzean edo beste pertsona edo erakunde baten ordezkaria izatean<sup>102</sup>. Baltzu lehiakide baten bazkide izateak lehia eraentzeko, beharrezkoa izango da erabaki ahalmen maila jakin bat ematea parte hartze horrek<sup>103</sup>. Esaterako, ordezkari proportzionalaren sistemaren bidez administrazio kontseiluko kide bat izendatzea ez da edozein parte hartze mota. Gainontzekoan, ez litzateke aplikagarri KSL 229.1.f artikuluko debekua, baina agian, kasuko inguruabarrak aintzat izanik, beste mota bateko interes gatazka egon liteke<sup>104</sup>. Halaber, beste baten kontura ariko da beste lehiakide baten langile edo zerbitzu prestatzaile hutsa izatean enpresaren antolakuntzan erabaki ahalmena badu<sup>105</sup>. Hala gertatuko da, esaterako, MK 283 artikuluan jasotzen diren faktoreen kasuan.

Hortaz, administratzaile bat interes gatazka iraunkorreko egoeran kokatuko da sozietateak baltzuaren kudeaketa egin dezan zein enpresariari dagozkion erabakiak har ditzan izendatua izan den aldi berean beste baten prestazioak edo jardura sustatu edo garatu behar dituenean<sup>106</sup>. Adibidez, Donostian ostalaritzarako produktuen salmentan

---

<sup>101</sup> GARCÍA GARCÍA, E. "Artículo 229...", 3162 orr.

<sup>102</sup> *Ibidem*, 3163 orr.

<sup>103</sup> JUSTE MENCÍA, J. "Artículo 229...", 407 orr.

<sup>104</sup> VALPUESTA GASTAMINZA, Eduardo, *ob. cit.*, 603 orr.

<sup>105</sup> JUSTE MENCÍA, J. "Artículo 229...", 407 orr.

<sup>106</sup> *Ibidem*, 406 orr.

aritzen den AA S.L. baltzuaren administratzailea izatea eta aldi berean Donostialdean jarduera bera garatzen duen BB S.L. baltzuaren faktore izatea.

Hori gertatzean, interes soziala kaltetzeko arriskuaz beste, administratzaileak hirugarren horrek, egun edo etorkizun batean, eman diezaiokeen ordainsari edo beste mota bateko abantaila izango du haren alde jarduteagatik<sup>107</sup>. Horrenbestez, erabaki beharko du zein nagusiren, ordezkaturia, interesak aseko dituen. Litekeena da, baltzuaren lehiakidearen interesaren alde egitea edo kasurik onenean, zailtasun larriak izatea aldi berean, bi leialtasunak gorde eta errespetatzeko erabakirik eraginkorra hartzeko<sup>108</sup>.

Burutzen duen jarduera horrek, baltzuarekiko leialtasuna urratzearen, sozietatearentzat lehia efektiboa eraendu behar du eta hori *ex ante* modu zuzenean zehaztea zailtasunak ekartzen dituen kontua da, batez ere, gogoan izanik zein diren egun legediak eskaintzen dituen balorazio elementuak<sup>109</sup>. Auzi hori gainditze aldera irizpide desberdinak proposatzen dira doktrinaren eremuan.

Irizpide formalistaren alde egitean lehia efektiboa izan dadin aldagai erabakigarria baltzuaren estatutu sozialetan jasotako objektu soziala da, aintzat hartu gabe, horren baitan barneratzen diren jarduera guztiak burutzen dituen ala ez<sup>110</sup>. Hala, administratzaileak kudeatzen duen baltzuaren objektu soziala osatzen duen jarduera bera burutzean, kudeatzen duen baltzuarekin lehia efektiboan sartuko da.

Badira horren aurka agertzen direnak ere<sup>111</sup>. Lehia egon dadin, hurbiltze errealista eginez, beharrezkoa izango da baltzua benetan jarduera hori burutzen egotea. Funtsean, arriskua sortzen duen jarduera baltzuak eskaintzen dituen ondasun eta zerbitzuekin du harremana, eta ez objektu sozialarekin modu orokorrean, erauzketa praktiken arriskua hor

---

<sup>107</sup> RIBAS FERRER, Vincenç, “Deberes de los administradores en la Ley de sociedades de capital”, *Revista de Derecho de Sociedades*, 38 zkia., 2012, 114. orr.: *El administrador que lleve a término el comportamiento competitivo por cuenta e interés de otro no sólo se encuentra en una situación en la que puede causar un riesgo de lesión al interés social. El administrador ocupa, además, una posición de interesado; su interés deriva de la contraprestación o retribución, actual o futura, que puede recibir del tercero por actuar por su cuenta e interés. Esta situación es la que hace que el administrador se encuentre en una posición conflicto, que le sujeta a las exigencias derivadas del deber de lealtad.*

<sup>108</sup> JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 229...”, 406 orr.

<sup>109</sup> Aldiz, 31/2014 erreforma Legearren aurretik lehia debekua KSL 230 artikuluan kokatzen zen, eta xedatzen zuen administratzaileak ezin zezakeela, ez bere kontura ezta beste baten kontura ere, administratzen duen baltzuaren objektu soziala osatzen duen jarduera-mota berdin, analogo edo osagarrian jardun.

<sup>110</sup> FERNÁNDEZ-ALBOR BALTAR, Ángel, *Prohibiciones de competencia en la sociedad de responsabilidad limitada*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2005, 109 orr. lanean hala definitzen da. Aintzat izan behar da KSL aurreko legediari erreferentzia egiten badio ere, arauaren muina bera dela eta irizpide formalista ulerzeko baliagarria.

<sup>111</sup> Ikuspuntu hori dute, besteak beste: GARCÍA COMPANYYS, A., *ob. cit.*, 787 orr., GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 229...”, 3163 orr., JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 229...”, 407 orr.

dago eta<sup>112</sup>. Beraz, administratzaile batek hark kudeatzen duen baltzuaren objektu sozialaren parte den, baina baltzuak garatzen ez duen, jarduera bat burutzen badu, eraturako beste baltzu baten bidez esate baterako, ulertuko da haren jarduera ez dela baltzuarekiko desleiala. Oinarria, administraturako baltzuak jarduera hori aurrera ez eramatea da.

Irizpide errealistaren alde ere egiten dute auzitegiek, eta jurisprudentzia txikiaren eremuan Nafarroako Probintzia Auzitegiaren 2020ko azaroaren 18ko epaia nabarmendu daiteke, zeinak jasotzen duen, administratzailearen jarduera lehiakorra izan dadin, ezinbestekoa dela baltzuak efektiboki garaturako jarduerak zein diren zehaztea, alegia, objektu sozialaz haratago dagoen jarduera eremua aztertu beharra dago<sup>113</sup>.

Auzitegi Gorenak<sup>114</sup> irizpide errealistaren alde egiten du ere. Auzi zehatz batean, auzitegiak erabaki zuen nahikoa zela, portaera desleial kontsideratzeko, administratzaile batek kudeatzen duen baltzuaren objektu sozial bera duen beste baltzu bat eratzea. Ostera, berdin du azkenean administratzaileak eraturako baltzu horren bidez objektu sozialaren parte diren jarduerak garatzen dituen ala ez portaera lehiakorra kontsideratu eta desleial kalifikatzeko. Hori bai, inguruabarren arabera frogatu daiteke objektu soziala bera bada ere, interes gatazkarik ez dagoela, eta horrenbestean, ez lehiarik ezta desleialtasunik ere.

Debekua merkatu jakin batera mugatzen da, erreferentziazko merkatura, alegia. Hori zehazteko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan: baltzuak eskaintzen dituen ondasun edo zerbitzuak, bezero potentzialak, espazio geografikoa eta denborazko inguruabarra<sup>115</sup>. Aintzat izanik lehiaren zuzenbidearen irizpideen aplikazio automatikoa, esku artean den egoera baloratzeko zuzenketak egin beharko dira sozietateen zuzenbideak beste jomuga bat baitu<sup>116</sup>.

---

<sup>112</sup> PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores...*, 148 orr.

<sup>113</sup> Nafarroako Probintzia Auzitegia, 3. Atala, 1164/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 18koa, 3. O.J.: *Se ha pasado por tanto a exigir que la actividad infractora del deber de lealtad entrañe una competencia efectiva actual o potencial con la sociedad o alternativamente que, de cualquier otro modo, la actividad desarrollada por el administrador le sitúen en conflicto de intereses con la sociedad. En el texto de la norma, el objeto social de la sociedad deja de ser pues el elemento delimitador de las actividades prohibidas al administrador, pasando a serlo toda actividad que entrañe una competencia efectiva con la sociedad o que sitúen al administrador en conflicto permanente con los intereses sociales.*

<sup>114</sup> Auzitegi Gorenak, Zibil Gela, 6666/2008 Epaia, 2008ko abenduaren 5koa, 3. O.J.: *procede fijar como doctrina jurisprudencial que la prohibición de competencia desleal que impone a los administradores el artículo 65 LSRL se infringe mediante la creación por parte de éstos, sin la autorización expresa de la sociedad, de una sociedad con idéntico objeto, salvo que se demuestre, valorando las circunstancias, que no existe contraposición de intereses.*

<sup>115</sup> GARCÍA COMPANYS, A., *ob. cit.*, 787 orr.; GARCÍA GARCÍA, E. "Artículo 229...", 3163 orr.; PORTELLANO DÍEZ, P., *El deber de los administradores...*, 150 orr.

<sup>116</sup> PORTELLANO DÍEZ, P., *El deber de los administradores...*, 150 orr.

Efektibotasuna zehazteko beste irizpide bat ere proposatzen da: jarduera lehiakorra efektiboa izango da administratzaileak horren garapenaren bitartez baltzuaren bezeria beregana badezake eta hala interes soziala kaltetu<sup>117</sup>. Era berean, lehia efektiboa izango da baltzua eta administratzaileak burutzen duen jarduera merkatu berean parte hartzeko egokia denean, hala, baltzuaren enpresa emaitzetan eragiteko egokia<sup>118</sup>.

Balorazioaren emaitza ahalik eta eraginkorrena izan dadin aztertu beharreko elementuen artean, besteak beste, administratzaileak garatzen duen edo garatu behar duen jarduera burutzeko baltzuak zein baliabide erabili behar dituen, zein inbertsio egin, egiteak zein ondorio ekonomiko sortuko dituen, zein negozio egingo den, bezeria handituko den, fakturazioaren hazkundera gertatuko den etab. aurkitzen dira<sup>119</sup>. Baliteke eta, administratzaileak garatu nahi duen jarduerak dituen ezaugarriak direla eta baltzuarentzat aritu ezineko eremua izatea eta hortaz, une horretan jarduera lehiakorra ez izatea.

Orduan, administratzaileak bere kontura edo beste baten kontura garatzen edo garatuko duen jarduera erreferentziazko merkatuan barneratzen denean, kontsideratuko da eremu horretan baltzuaren eta administratzailearen jarduerak bat egiten dutela, interes gatazka sortzen dela eta beraz, administratzailearen KSL 229.1.f artikuluko abstentzio betebeharra errespetatu behar dela.

Orobat, lehia egungoa edo potentziala izan daiteke. Arauaren oinarria baltzuak jasan dezakeen kaltea da eta lehia dagoela zehazteko ez da beharrezkoa frogatzea beste enpresa edo pertsonen onura, etekina, jaso izana<sup>120</sup>.

Lehia egungoa izango da une horretan gertatzen denean. Aldiz, potentzialitateak eskatzen du etorkizun batean lehia egoera gertatzea aurreikusgarria izatea, objektu sozial bera duen baltzua eratzean esaterako, oraindik jarduerak hasi gabe baina etorkizunean garatuko dituela ikustea arrazoizkoa denean<sup>121</sup>. Beste hitz batzuetan esanda, lehia

---

<sup>117</sup> RIBAS FERRER, Vincenç, “Deberes de los administradores...”, 114 orr.

<sup>118</sup> Nafarroako Probintzia Auzitegia, 3. Atala, 1164/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 18koa, 3. O.J.: *será preciso probar que la actividad realizada por el administrador entraña una competencia efectiva, esto es que sea adecuada para ocasionar un resultado de concurrencia en el mismo mercado, susceptible de repercutir en definitiva en los resultados empresariales de la sociedad originaria.*

<sup>119</sup> GARCÍA COMPANYS, A., *ob. cit.*, 787 orr.

<sup>120</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 6666/2008 Epaia, 2008ko abenduaren 5koa, 3. O.J.: *La normativa legal se inspira en el daño que pueda sufrir la sociedad, el cual ha de tratarse de un riesgo serio y consistente que puede ser actual o potencial y no exige la demostración de un beneficio efectivo en otras empresas o en otras personas.*

<sup>121</sup> GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 229...”, 3164 orr.



potentziala izan dadin beharrezkoa izango da baltzuari eragingo zaion kaltea serioa eta sendoa izatea<sup>122</sup>. Halaber, aurreikusgarria bada, edo nahiko probablea, administratzaileak kudeatzen duen baltzua eta administratzailearen beste jarduera etorkizun batean lehiatzea, debekua aktibatu beharko da.

Lehia egiteko debekua ez da sozietateen zuzenbidera mugatzen den kontua, esaterako, agentzia kontratuan ere halako obligazio bat ezartzen baita. Hala, agenteak agentzia-kontrata sinatu duen enpresaburuaren adostasuna beharko du bere kontura edo beste baten kontura jarduera profesional bat egiteko, baldin eta jardueraren objektu diren ondasun edo zerbitzuak izaera berekoak edo antzekoak badira eta kontratazioa sustatu behar duen enpresaburuekin lehiatzen badira, 12/1992 Legeko<sup>123</sup> 7 artikuluan. Beraz, arau orokorra da agenteak enpresariarekin, nagusia, lehiatzeko debekua duela eta legeak aukera ematen dio enpresariari debeku hori salbuesteko. Ikus daiteke kapitalezko baltzuen araudiak eraentza bera jarraitzen duela KSL 229.1.f eta 230.3 artikuluetan.

KSL 229.1.f artikulua ostera, modu orokorrean jasotzen du, administratzailea lehia ez den beste edozein moduren bidez interes gatazka iraunkorrak sortzen dituzten jarduerak garatzeko abstentzio betebeharra duela. Kontzeptu juridiko zabala erabiltzen den heinean, bigarren debeku hau hala laburbildu daiteke: administratzaileari baltzuaren interesekin gatazka iraunkorrean kokatzen dioten baltzuetan parte hartzeko debekua ezartzen zaio<sup>124</sup>. Gatazka iraunkorra denez, eraginkorragoa da administratzaileak jarduera hori ez egitea, abstenitzea, interes gatazka egon daitekeen kasu guztietan eztabaida eta bozketan abstenitzea baino (KSL 228.c artikulua), gatazkaren iraunkortasuna dela medio, ohikoa izango delako<sup>125</sup>.

Lehiatik eratorritzen ez den interes gatazka iraunkorra, ordezkari proportzionalaren sistemaren bidez izendatutako kontseilukideei zuzentzen zaie<sup>126</sup>, zehazki, administratzailea baltzuekin lehiakidea izan ez arren, hura izendatu duen

---

<sup>122</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 3690/2008 Epaia, 2008ko ekainak 12koa, 3. O.J.: *Entendemos que la "ratio" o idea básica que inspira la normativa legal se halla en el daño que pueda sufrir la sociedad, daño que puede ser actual o potencial, si bien para la apreciación de éste se requiere un riesgo serio y consistente.*

<sup>123</sup> 12/1992 Legea, maiatzaren 27koa, Agentzia Kontratuari buruzkoa (1992ko maiatzaren 29ko EBO, 129 zkia.)

<sup>124</sup> EMPARANZA SOBEJANO, A. "La responsabilidad de los administradores por infracción del deber de lealtad (art. 227.2 LSC)", PULIDO BEGINES, J.L. (Zuz.), Responsabilidad de los administradores de las sociedades de capital, Marcial Pons, Madrid, 2019, 215 orr.

<sup>125</sup> *Ibidem*, 215 orr.

<sup>126</sup> PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores...*, 155 orr.

bazkidea sozietatearen lehiakidea denean. Honako interes gatazka iraunkorra baltzu anonimoetan zein erantzukizun mugatuko baltzuetan<sup>127</sup> geratuko da.

Egoera ondorengoa da: sozietatearen bazkide bat baltzu horren lehiakidea da eta KSL 243 artikulua gordetzen duen ordezkari proportzionalerako aukera baliatzen du administrazio kontseiluko kide bat edo gehiago izendatzeko. Behin administratzailea izendatuta, batzar nagusiak hala izendatutako administratzailea kargugabetzen du KSL 223 edo 224 artikulua oinarri izanik eta sistema proportzionalaren bidez izendapena egin duen bazkideak auzitegiara jotzen du kargugabetze akordio soziala aurkatzeko. Prozedura judizialean ebatzi beharko da zerk duen lehentasuna: baltzuaren interes sozialaren babesa ala bazkide edo bazkide talde baten aukera sistema proportzional bidez administrazio kontseiluko kide bat izendatzeko. Interes soziala jokoan dago izendatutako administratzaileak horren alde ez egiteko arriskua dagoelako izendatu duen bazkidearen izaeragatik.

Gainera, bazkideak modu ohikoan izendatu duen administratzaileari aginduek ematen badizkio eta ostera hark bete ezker, akzionista ezkutuko administratzailea izango da, horrek sortzen duen erantzukizunarekin<sup>128</sup>. Bazkideak, era berean, bazkideen artean zor diren leialtasuna dela medio, gainontzeko bazkideei baltzuaren lehiakide dela jakinarazi beharko die<sup>129</sup>.

Auzitegiek hartutako bidea interes soziala babestearen aldekoa izan da, Acciona eta FCC zein ACS eta Iberdrola kasuetan<sup>130</sup>. Acciona eta FCC kasua ebatzi zuen epaiak jaso zuen ordezkari proportzionalaren sistemaren garrantzia bazkide minoritarioak eskuratu dezakeen informazioan eta administrazio kontseiluan burutu dezakeen kontrolean oinarritzen dela<sup>131</sup>. Eraginez, eta batez ere informazioa eskuratzeko, sortzen duen interes gatazka baltzuaren eta baltzuaren bazkide lehiakidearen artean nabarmena da, bide ematen baitio interes soziala kaltetzeko baita jarduera desleialak burutzeko ere,

---

<sup>127</sup> MEE 191 artikulua esanbidez debekatzen badu ere izendapen modalitate hau erantzukizun mugatuko baltzuetan, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko martxoaren 28ko Ebazpenak (2022ko apirilaren 19ko EBO, 93 zkia.), 2. O.J., onartu du estatutu sozialetan izendapen modalitate hau aurreikustea.

<sup>128</sup> PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores...*, 155 orr.

<sup>129</sup> *Ibidem*, 155 orr.

<sup>130</sup> Acciona v. FCC Kasua (Bartzelonako Probintzia Entzutegia, 15. Atala, 15716/2005 Epaia, 2005ko abenduaren 14koa) eta ACS v. Iberdrola Kasua (Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 5407/2014 Epaia, 2014ko azaroaren 11koa).

<sup>131</sup> Bartzelonako Probintzia Entzutegia, 15. Atala, 15716/2005 Epaia, 2005ko abenduaren 14koa, 7. O.J.: *La verdadera importancia de tal facultad o derecho reside, no ya en una gestión compartida, en la práctica generalmente imposible, sino sobre todo en la información y control que a través del representante de la minoría puede obtenerse y ejercitarse en el consejo de administración.*

merkatuko lehia askea zapuzteko aukera barne<sup>132</sup>. Hala, interes gatazka iraunkorraren iturburua ez da administratzailearen izaera edo interesak, baizik eta hura izendatzeko modua eta izendatu duen subjektua<sup>133</sup>. ACS eta Iberdrolaren kasuan Auzitegi Gorenak haren 5407/2014 Epaian erabaki bera hartu zuen.

Noski, izendapen sistema proportzionala baliatu duen bazkidearen eta baltzuaren artean sortzen den interes gatazka koiunturala izango balitz, hartu beharreko irtenbidea beste bat litzateke, alegia, KSL 228.c artikuluko abstentzioa akordioaren eztabaidan zein bozketan.

Azkenik, zehaztapen bat egiteko helburuz, edozein administratzaile interes gatazka iraunkorreko egoeran kokatzen bada, nahiz eta ez izan ordezkari-tza proportzionaleko sistema bidez, baltzuari jakinarazpena egin beharko dio KSL 229.3 artikuluekin bat. Jakinarazpena eginik batzar nagusiak ez badu administratzailea kargugabetzeko erabakia berehala hartzen, ulertu beharko da KSL 230.3 artikuluan jasotako dispentsa ematearen baliokidea izan dela<sup>134</sup>. Aldiz, komunikazioa egingo ez balitz, KSL 243 artikuluko sistema erabili duen bazkidearen erantzukizuna sortuko da eta gutxienez, kalteak berdintzeko akzioa jasan dezake<sup>135</sup>.

Egungo xedapenak duen erredakzio zabalak segurtasun juridiko eza eragiten duen heinean eta zuhurtzia arrazoiak direla medio, KSL 229.3 artikuluan jasotako komunikazio betebeharrak garrantzia berezia hartzen du<sup>136</sup>.

### **3. DEBEKUEN SALBUESPENA: DISPENTSA**

Aztertu den leialtasun betebeharraren inguruko eraentza eta horren urraketagatik eratortzen den erantzukizuna aginduzkoa da (KSL 230.1 artikulua). Hala, legezko eraentza mugatzen duten edo aurkakoak diren estatutu xedapenak, zein administratzaile eta baltzuaren arteko kontratu xedapenak<sup>137</sup>, deusezak dira, (KSL 230.1 *in fine* artikulua

---

<sup>132</sup> Bartzelonako Probintzia Entzutegia, 15. Atala, 15716/2005 Epaia, 2005ko abenduaren 14koa, 7. O.J.: *en particular el de información, en manos de administradores nombrados por un socio portador de intereses opuestos a los de la sociedad, sirven de plataforma idónea, en abstracto, para perjudicar el interés social y crean las condiciones adecuadas para el desarrollo de prácticas desleales, falseando igualmente la libre competencia. Se trata de una percepción respaldada por datos objetivos, que entra en el orden lógico de las cosas, y además inevitable.*

<sup>133</sup> Bartzelonako Probintzia Entzutegia, 15. Atala, 15716/2005 Epaia, 2005ko abenduaren 14koa, 10. O.J.: *el dato relevante en este caso no es tanto la aptitud y cualidades personales de los nombrados, o las mayores o menores garantías de independencia que personalmente ofrezcan, sino la fuente u origen de su nombramiento.*

<sup>134</sup> PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores...*, 156 orr.

<sup>135</sup> *Ibidem*, 157 orr.

<sup>136</sup> ARIAS VARONA, F., *ob. cit.*, 93 orr.

<sup>137</sup> GARCÍA GARCÍA, E. "Artículo 230...", 3173 orr.

KZ 6.3 artikularekin harremanetan). Aldiz, estatutu sozialen bidez legezko eraentza zabaldu daiteke eta erantzukizunaren arauketa indartu ere<sup>138</sup>.

Derrigorrezkotasuna bada ere arau orokorra, KSL 229.1 artikulua jasotako debekuak, debeku erlatiboak diren horiek, banakako kasuetan sozietateak berak dispentsatu ditzake (KSL 230.2.I artikulua), baina, KSL 229.1.b artikulukoaren (baltzuaren izena helburu pribatuetarako erabili) inguruan zalantzak daude<sup>139</sup>. Debekuak salbuesteko aukera irekiko ez balitz, baltzuarentzat potentzialki onuragarriak izan daitezkeen eragiketak eragotziko lirateke, adibidez, eragiketa lotuen kasuan dauden sinergiak aprobetxatzea edo soilik administratzailea prest dagoenean eskaintza jakina egiteko<sup>140</sup>. Baimena eskatzen da baltzuarekiko leialtasuna ez urratzearen eta lortu ezker, administratzaileak bere edo hari lotutako pertsona baten interesean jardun arren, ez du leialtasun betebeharra urratuko<sup>141</sup>.

Hala administratzaile jakinak, edo hari lotutako pertsona jakin batek, modu banakakoan ondorengo eragiketaren bat egin dezan baimena jaso dezake KSL 230.2.I artikularekin bat: (i) sozietatearekin zehaztutako transakzio bat burutu (KSL 229.1.a artikuluko debekua), (ii) aktibo sozial jakinen erabilera egin (KSL 229.1.c artikuluko debekua), (iii) negozio aukera zehatz baten aprobetxamendua (KSL 229.1.d artikuluko debekua) eta (iv) hirugarren batengandik abantaila edo ordainsari bat jaso (KSL 229.1.e artikuluko debekua). Azken honek lotura gordetzen du, KSL 217.1 artikulua 160.c artikularekin harremanetan, ordainsaria zehazteko eskumenarekin. Ez da onargarri baimena modu generikoan ematea, baina, posible da debekaturiko hainbat jarduera burutzeko dispentsa soziala ematea zehaztutako portaerak zein diren eta horiek interes sozialean izan dezaketean eragina behar bezala zehaztuak egon ezker<sup>142</sup>.

Dispentsa emateko betekizunak prozedurazkoak (organo sozial eskuduna eta dispentsa emateko modua) eta sustantiboak (ekitatea eta gardentasuna, nagusiki) dira<sup>143</sup>.

---

<sup>138</sup> GARCÍA COMPANYS, A., *ob. cit.*, 778 orr. Ados: GARCÍA GARCIA E. “Artículo 230..., 3174 orr.

<sup>139</sup> Beste hainbaten artean: GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 230..., 3177 orr. eta JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 230..., 417 orr. Hala ere beste hainbatek dispentsagarritzat hartzen du: PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “Anatomía..., 54 orr. eta VALPUESTA GASTAMINZA, E., *ob. cit.*, 601 orr.

<sup>140</sup> GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 230..., 3177 orr.

<sup>141</sup> BOQUERA MATARREDONA, Josefina, “La dispensa del conflicto de interés de los administradores por la Junta General”, *Revista de Derecho de Sociedades*, 57 zkia., 2019, 25 orr.

<sup>142</sup> GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 230..., 3177 orr.

<sup>143</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4256/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 22koa, 3. O.J.: *Los requisitos de la dispensa son de carácter procedimental (fundamentalmente, qué órgano social y cómo ha de otorgar la dispensa) y sustantivo (fundamentalmente, los de equidad y transparencia).*

Honela, administratzailearen eta baltzuaren arteko gatazka saihetsezina izatea ez da dispentsa emateko ukanbearra<sup>144</sup>. Doktrinaren<sup>145</sup> eremuan betekizunak hirutan bereziten dira: prozedura, ekitatea eta gardentasuna. Ukanbear guztien xedea dispentsa ematean arbitrariotasuna ekiditea eta interes soziala babestea da<sup>146</sup>.

Jarraian aztergai izanen diren betekizun horiek guztiak betetzeak hartzen den dispentsaren akordio sozialaren baliozkotasuna baldintzatzen du, eta horietakoren bat betetzen ez bada, dispentsaren akordio soziala aurkaratzeko bidea irekitzen da (KSL 204 eta hurrengo artikulua)<sup>147</sup>.

Prozedurazko betekizunekin hasita, legegileak batzar orokorrari kasurik larrienen gainean erabakitze eskumena esleitu dio eta, esangura txikiagoa dutenen inguruan administrazio organoari<sup>148</sup>.

Ezinbestean batzar nagusia eskudun da interes gatazka eragiten duten egoera hauen gaineko dispentsa emateko, KSL 230.2.II artikulua xedatzen duen moduan: (i) hirugarren batengandik abantaila edo ordainsaria jasotzeko debekua salbuesteko<sup>149</sup> eta (ii) baltzuarekin burutu nahi den transakzioaren zenbatekoa sozietatearen aktibo sozialaren balioaren, balantzeko<sup>150</sup>, % 10 baino handiagoa denean.

---

<sup>144</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4256/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 22, 3. O.J.: *La "inevitabilidad" del conflicto no es un requisito de la dispensa.*

<sup>145</sup> PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, "Anatomía...", 57-58 orr.: (i) *una regla de procedimiento, que asegura o trata de asegurar la independencia del órgano que otorga la dispensa respecto del administrador afectado; (ii) una regla de equidad o fairness, que trata de garantizar el carácter equitativo de la transacción, sea porque es inocua para el patrimonio social —piénsese en una oportunidad de negocio abandonada o desistida por la sociedad o en una dispensa de la obligación de no competencia basada una prognosis de beneficio esperado superior al daño anticipado—, sea porque se concierta en condiciones de mercado; y (iii) una regla de transparencia.* Hiru ukanbear horietan sailkatzen ditu ere: EMPARANZA SOBEJANO, A., "El deber de lealtad de los administradores y de evitar situaciones de conflicto", EMPARANZA SOBEJANO, Alberto (Zuz.) *Las nuevas obligaciones de los administradores en el gobierno corporativo de las sociedades de capital*, Marcial Pons, Madrid, 2016, 144 orr.

<sup>146</sup> EMPARANZA SOBEJANO, A., "El deber de lealtad...", 144 orr.

<sup>147</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4256/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 22, 3. O.J.: *la no concurrencia de los requisitos, procedimentales o sustantivos, exigidos para la validez del acuerdo que concede la dispensa al administrador para realizar una transacción que entra en el ámbito de la prohibición del art. 229.1.a LSC, permite impugnar el acuerdo social de concesión de la dispensa al administrador.*

<sup>148</sup> PORTELLANO DÍEZ, P. "Las obligaciones de los administradores en el marco de la función de garantía del régimen de los conflictos de interés", *Las sociedades de capital: sus intereses y sus conflictos*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2022, 221 orr.

<sup>149</sup> Debeku honen dispentsa emateko, PAZ-ARES katedradunak adierazten du baltzu jakinaren administrazio organoa administrazio kontseilua denean eta, kontseilari delegatuarekin geratzen den moduan, jasotzen duen ordainsaria administratzaile karguari ez dagokionean, hirugarren batengandik ordainsaria edo abantaila jasotzeko debekua salbuesteko eskuduna administrazio organoak izan beharko lukeela KSL 230.2.II artikulua murriztapen teleologikoa eginez. (PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, "Anatomía... 58. orr.)

<sup>150</sup> JUSTE MENCÍA, J. "Artículo 230...", 419 orr.: legezko testutik eratorzen da balantzeko balioa dela aintzat hartu beharrekoa, baina xedapenak ez duenez ezer ere ez esaten, proposatzen du merkatuko balioa dela kontuan hartu beharko litzatekeena. Merkatuko balioaren alde ere agertzen da: GARCÍA GARCÍA, E. "Artículo 230...", *ob. cit.*, 3179 orr.

Gainera, erantzukizun mugatuko sozietateetan, berezitasun modura, batzarra eskudun da ere, KSL 230.2.II *in fine* artikuluekin bat: (i) edozein motatako finantza laguntza emateko, administratzailearen aldeko bermeak barne, KSL 162 artikuluan jasoa, eta (ii) administratzailearen eta baltzuaren arteko zerbitzu edo obra harreman bat ezartzeko, KSL 220 artikuluan aurreikusia. Baltzu anonimoetan eskuduntza, xedapena *contrario sensu* interpretatuz, administrazio organoarena da.

KSL 230.2.II artikulua *ezinbestean* hitza erabiltzeak, ondorioztatzera ematen du bertan xedatu ez diren beste kasuetan eskumena administrazio organoarena izan daitekeela edo batzar orokorrarena, eta hori erabakitzea, baltzuaren erabakiaren pean geldituko da <sup>151</sup>. Horretarako bide ematen du, KSL 160.j artikulua.

Eskudun batzar orokorra denean, baliteke dispentsaren akordio sozialaren bozketan egoera berezi bat gertatzea: baltzuaren administratzailea aldi berean bazkide ere izatea. Halakoetan, KSL 190.1.e artikuluekin bat, bazkideak ezingo du bere bozka eskubidea egikaritu, bozkatzen den hori, leialtasun betebeharretik eratorritako obligazio bat dispentsatzera zuzentzen baita. Aintzat izan debekua bazkide administratzaileari zuzentzen zaiola, eta ez zaie zabaltzen bazkideari lotutako pertsoneri. Hortaz, zeharkako interes gatazka izango balute ere, haien bozka eskubidea egikaritu ahal izango dute <sup>152</sup>. Bozketan, KSL 190.2 artikuluari jarraiki, bazkide administratzailearen akzioak edo partaidetzak kapital sozialetik kenduko dira, kasu bakoitzean beharrezkoa den botoen gehiengoa zenbatzeko.

Aipatzekoa da ere AGE 8863/2012<sup>153</sup>, non jasotzen den, administratzaileak bazkide bat ordezkatzeko badu batzar orokorrean, nahiz ordezkatuaren borondatea adierazi

---

<sup>151</sup> BOQUERA MATARREDONA, Josefina, *ob. cit.*, 26 orr.

<sup>152</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 359/2017 Epaia, 2017ko otsailaren 2koa, 4. O.J.: *el art. 190 TRLSC únicamente prohíbe el derecho de voto, al igual que hacía el art. 52 LSRL, al socio afectado, pero no extiende dicha interdicción a las personas vinculadas. Es decir, las personas vinculadas quedan afectadas por las prohibiciones y restricciones de los arts. 229 y 230 TRLSC, pero no por la privación de voto, que tanto el art. 190 TRLSC como el art. 52 LSRL, circunscriben exclusivamente al socio o socios afectados. Ni en la Ley de Sociedades de Responsabilidad Limitada, ni en la vigente Ley de Sociedades de Capital se ha regulado el denominado conflicto indirecto de intereses, es decir, aquel en que los intereses de un socio no se encuentran en contraposición directa con los de la sociedad, pero existe una vinculación estrecha entre tales intereses de un socio y los de otro socio, que en el asunto en cuestión, entran en conflicto abierto con los de la sociedad. Para que existiera conflicto de intereses, la dispensa del deber de no competencia (art. 65 LSRL) debería afectar al grupo de sociedades o a todos los socios, pero si solo afecta a alguno de ellos, no cabe apreciarlo, y por tanto no opera el deber de abstención de otra sociedad del grupo o de otro socio.*

<sup>153</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 8863/2012 Epaia, 2012ko abenduaren 26koa, 7. O.J.: *El deber de abstención es aplicable tanto si el conflicto de intereses existe respecto del socio como si existe respecto de la persona que ejercita en concreto el derecho de voto. Esta interpretación se extrae de la ratio de la norma (art. 52.1 LSRL), que pretende evitar el conflicto con el interés social que se ocasiona cuando en la votación que acuerda la dispensa al administrador de la prohibición de competencia, interviene el propio administrador afectado, ya sea porque es el socio que ejercita*

eta ez pertsonala, hark bozketan abstentzio betebeharra izan beharko duela sozietate kanpoko interesak dituelako eta helburua administratzailea erabakitik guztiz at egotea delako<sup>154</sup>.

Bozketan, dispensa erabakia aurrera atera dadin, KSL 199.b artikulua dio EMBtan 2/3eko gehiengo indartua eskatzen da lehia debekua salbuesteko, eta gainera, estatutu bidez indartu daiteke KSL 200 artikularekin bat. SAren kasuan, ez da gehiengo berezirik eskatzen, KSL 201.1 artikulua dioenez, gehiengo estatutu bidez indartu badaiteke ere (KSL 201.3 artikulua). Bestelakoan, dispensaren akordioa arrunta da<sup>155</sup>, eta batzarraren edo administrazio organoaren bilera konbokatze eta garatzeko arau orokorrak jarraitu behar dira.

Aldiz, aipatu ez diren gainontzeko kasuetan<sup>156</sup>, dispensa emateko eskuduntza administrazio organoari dagokio ere, KSL 230.2.III artikulua, beti ere haren independentzia bermaturik geratzen bada. Xedapenak *administrazio organoari dagokio ere* hitzak erabiltzeak aditzera ematen du, inguruabarrak kontuan izanik, gatazkaturik ez dauden administratzaileek batzar nagusiari beharrezko kontsulta egiteko aukera dutela baimena ematearen inguruan<sup>157</sup>.

Independentziak, dispensa emateko moduaren ukanbehar bezala, eskatzen du dispensa eskuratu nahi duen administratzailearen abstentzioa (KSL 228.c artikulua), bai eztabaidan baita bozketan ere gertatzea. Administrazio modalitatea administratzaile bakarra denean eskudun batzar orokorra izango da. Hainbat administratzaile solidario edo mankomunatu izatean zein kontseiluaren kasuan, eskudun izango dira gatazkarik ez duten administratzaileak. Horiek denak gatazkaturik badaude, eskuduna batzar nagusia izango da ere, guztiek abstentzio betebeharra baitute. Era berean, baltzu jakinaren administrazio modua administrazio kontseilua den kasuetan, dispensa emateko erabakia hartzeko eskumena ezin daiteke eskuordetu KSL 249 bis b artikuluari jarraituz, beraz kontseilari

---

*directamente el voto, ya sea porque actúa como representante del socio. Lo relevante es que no puede intervenir en una votación sobre un asunto (su dispensa como administrador de la prohibición de competencia), quien detenta el interés extrasocial en conflicto con el interés social.*

<sup>154</sup> Hala interpretatzea gehiegizkoa dela irizten du JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 230..., 421 orr.

<sup>155</sup> *Ibidem*, 420 orr.

<sup>156</sup> GARCÍA GARCÍA, E. “Artículo 230..., 3180 orr.: *La competencia lo es, en cambio, del órgano de administración para los demás casos que no están atribuidos a la junta general. Entre ellos resultarían incluidos los siguientes: 1º) los de asistencia financiera o el establecimiento con la sociedad anónima administrada de relaciones de servicios u obra; 2º) los de autorización al administrador para realizar operaciones vinculadas con la sociedad que no superase el umbral de relevancia antes mencionado; 3º) la dispensa para el uso de ciertos activos sociales; y 4º) la autorización para el aprovechamiento de una concreta oportunidad de negocio.*

<sup>157</sup> JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 230..., 418 orr.

delegatu batek ezin dezake halako erabakia hartu. Administrazio organoarekin amaitzeko, dispentsaren inguruko erabakia ez du administratzaileen enpresa diskrezionaliteak babesten KSL 226.2 artikulua xedatzen duen moduan.

Batzar orokorrari egindako eskumenen esleipenak administratzaileen gaineko kontrola indartzera badator ere, hari interes gatazka bat aurkezten zaion bakoitzean beharrezkoa bada batzarra deitzea dispentsa lortzeko, zailtasun operatiboak sor daitezke, batzar hori egiteak dakartzan denbora zein ekonomia kostuak alde batera utzi gabe. Hori dela eta, dispentsaren edukia desnaturalizatu gabe, barne erregelamendu bat osatu liteke administratzailearen interes gatazka ekarriko duten eragiketa jakin batzuk baimentzeko prozedura laburtua aurreikusteko<sup>158</sup>. Nolanahi ere, oso ondo zehaztuta egon beharko liriteke dispentsaren xede diren eragiketen xehetasun garrantzitsuak, sozietatearen negozioen ohiko ibilbidean gertatu beharko liritekeenak; aintzat izan, bata bestearen segidakoak eta denboran etengabeak izango liritekeela eragiketa horiek.

Ekitatearen ukanbearra, betebehar sustantiboen artean lehena, beteko da dispentsaren objektu den portaerak ondare soziala kaltetzen ez badu, edo bere kasuan, eragiketa merkatuko balditzetan egiten bada KSL 230.2.III *in fine* artikuluekin bat. Alegia, eragiketaren kaltegabatasuna bermatzean; jomuga interes sozialaren babesa baita<sup>159</sup>. Horrenbestez, legez ezarritako prozedurazko ukanbearrak bete arren, baimentzen den portaerak interes soziala kaltetzen badu, dispentsak ez du administratzailearen erantzukizuna salbuesten eta dagokion erantzukizun akzioa jasan dezake bere kasuan<sup>160</sup>. Orobat, eragiketak interes sozialarentzat komenigarria izatea beharrezkoa da<sup>161</sup>.

Gardentasuna bete beharreko azken ukanbearra da. Baltzuaaren organo sozial eskudunari egoeraren gaineko informazioa helarazi behar zaio hala interes gatazka egoeraren arriskua ezagutu eta bere kasuan, gatazkatik eratorri daitezkeen kalteetatik babesteko neurririk eraginkorrenak hartzeko<sup>162</sup>; gainontzeko bermeen oinarritzat har daiteke<sup>163</sup>. Sistematikoki KSL 230.2.III artikuluan xedatzen bada ere, sozietatearen batzar

---

<sup>158</sup> EMPARANZA SOBEJANO, A., El deber de lealtad de..., 143 orr.

<sup>159</sup> PORTELLANO DÍEZ, P. "Las obligaciones de los administradores...", 229 orr.

<sup>160</sup> EMPARANZA SOBEJANO, A., El deber de lealtad de..., 145 orr.

<sup>161</sup> PORTELLANO DÍEZ, P. "Las obligaciones de los administradores...", 234 orr.

<sup>162</sup> *Ibidem*, 213 orr.

<sup>163</sup> BOQUERA MATARREDONA, Josefina, *ob. cit.*, 34 orr.



orokorra eskudun denean ere aplikagarri da<sup>164</sup>. Baltzuak informazio hori esku artean izatearen abiapuntua KSL 229.3 artikuluan jasotako interes gatazka egoerak komunikatzeko betebeharra dago. Bazkideen informaziorako eskubideak garrantzia berezia hartzen du, EMBen kasuan KSL 196 artikulua, eta, SAn KSL 197 artikulua, administratzaileak burutu nahi duen portaeraren arriskuak eta horrek interes sozialean izan dezakeen eragina xehetasunez ezagutzeko aukera ematen baitie. Administratzaileei ere informazioa zor zaie, haiek eskudun diren kasuetan. Debekaturiko eragiketa burutu nahi duenak horren inguruan esangura duten xehetasunak azaldu beharko ditu erabaki aproposena, hori edozein dela ere, hartua izan dadin eta beharrezkoak irizten diren datu gehigarriak eska daitezke<sup>165</sup>.

Azkenik, baltzuekin ez lehiatzeko obligazioa, KSL 229.1.f artikuluan jaso, dispentsatzeko legediak prozedura berezi bat aurreikusi du KSL 230.3 artikuluan. Baimen horrek, gainontzeko kasuetan ez bezala, izaera orokorra du eta iraupen mugagabekoa da<sup>166</sup>. Kontua da ez dela egoera episodikoa izango, baizik eta iraupenezkoa, egiturazko izaera duena, eta horrenbestean, ondorioak etorkizunerantz modu jarraituan proiektatu daitezke<sup>167</sup>.

Debekua salbuetsi ahal izango da, soilik, KSL 230.3.I artikuluari eutsirik, sozietatearentzat kalterik ez aurreikustean edo aurreikustekotan, sor daitekeen hori dispentsa ematetik eratorriko diren onurek edo etekinek konpentsatuko dutela espero denean.

Organo eskuduna, KSL 230.3.I *in fine* artikulua, batzar orokorra da eta aipaturiko betebeharrez beste, prozedurazko bi ukanbehar bete beharko dira: dispentsa akordioa esanbidezkoa eta banatua izatea. Akordioaren betebeharrak bi horiek legez bakarrik ez

---

<sup>164</sup> GARCÍA GARCÍA, E. "Artículo 230...", 3183 orr.

<sup>165</sup> *Ibidem*, 3183 orr.

<sup>166</sup> Las Palmas de Gran Canariako Probintzia Entzutegia, 4. Atala, 768/2021 Epaia, 2021eko apirilaren 27, 8. O.J.: *en el caso de las conductas del art. 229.1.f) LSC, la dispensa no se realiza para casos singulares, como ocurre con la dispensa regulada en el art. 230.2 LSC, sino con carácter permanente.*

<sup>167</sup> Las Palmas de Gran Canariako Probintzia Entzutegia, 4. Atala, 768/2021 Epaia, 2021eko apirilaren 27, 8. O.J.: *La prohibición de desarrollar actividades por cuenta propia o cuenta ajena que entrañen una competencia efectiva, sea actual o potencial, con la sociedad se establece en el art. 229.1.e LSC junto con la prohibición de desarrollar actividades que, de cualquier otro modo, le sitúen en un conflicto permanente con los intereses de la sociedad. Ambas conductas, a diferencia de otras previstas en los anteriores apartados del art. 229.1 LSC, presentan unos caracteres comunes, fundamentalmente el de no consistir en actuaciones concretas o episódicas, sino en una situación duradera, de carácter estructural, que puede proyectar sus efectos de forma continuada en el tiempo. Por tanto, en el caso de las conductas del art. 229.1.f) LSC, la dispensa no se realiza para casos singulares, como ocurre con la dispensa regulada en el art. 230.2 LSC, sino con carácter permanente. Por tal razón, se dota de especiales cautelas a la dispensa de esta conducta.*

lehiatzeko debekua salbuesteko aurreikusten badira ere, debeku dispentsagarri guztietara zabaldu behar da gardentasun arrazoiak direla medio KSL 197 bis.1 artikulua oinarri. Administrazio organoa eskudun den kasuetan ere modu berdinean jokatu beharko litzateke<sup>168</sup>. Esanbidezkoa izan beharrak eragiten du, baimena emateko nahikoa ez izatea KSL 229.3 artikuluko komunikazioa egitea<sup>169</sup>.

Behin administratzaileari baimena emanda, KSL 230.3.II artikulua, baltzuari kaltea eragiteko arriskua nabarmena eratorri denean edozein bazkidek eskatuta sozietatearekin lehiatzen duten jarduerak burutzen dituen administratzailearen kargugabetzea ebatziko du batzar orokorrak. Hortaz, dispentsa errebokatu daiteke. Egoera hori ekiditearren, gomendagarria izan daiteke dispentsa jasotzen duen akordio edo erabaki soziala ahalik eta zehatzena izatea, lehiaren mugak argi zehaztuak gera daitezen<sup>170</sup>. Halaber, EMBen berezitasun modura, KSL 350 artikulua<sup>171</sup> jasotzen du bazkide den administratzaileak ez lehiatzeko debekua urratzen duenean, hura eskluitzeko aukera.

Kasu jakin batean, legez ezarritako ukanbehar guztiak errespetaturik eta beharrezko kautelazko neurriak hartuta, behin baltzuak administratzailea debeku batetik dispentsatzeak ez dio administratzaileari portaera jakin hori egiteko baimen mugagabea ematen. Alegia, administratzaileak baltzuak emandako dispentsaren eremura mugatu behar du bere portaera. Hala egin ezean, dispentsa akordioaren exekuzioaren baitan administratzailea agian, baltzuarekiko leialtasun betebeharra urratzen egongo litzateke eta hori baltzuak kontrolatu dezake eta beharrezko akzioak tarteratu<sup>172</sup>. Arriskua handiagoa izango da, balorazio zailtasunak sor ditzakeelako batez ere, dispentsa akordioan administratzaileari jardute eremu margen zabala ematean.

Dispentsa akordioaren exekuzio desleiala egon dela zehazteko, dispentsatutako administratzailearen portaerak fede txarrekoa izan behar du eta exekuzioak baltzuaren

---

<sup>168</sup> PORTELLANO DÍEZ, P. "Las obligaciones de los administradores...", 224 orr.

<sup>169</sup> BOQUERA MATARREDONA, Josefina, *ob. cit.*, 34 orr.

<sup>170</sup> MEMBRADO HERRERA, I. "Protección de la discrecionalidad empresarial y deber de lealtad de los administradores", JORDÁ GARCÍA, R. eta NAVARRO MATAMOROS, L., *Mejora del gobierno corporativo de sociedades no cotizadas (A propósito de la Ley 31/2014, de 3 de diciembre)*, Dykinson, Madrid, 2015, 126 orr.

<sup>171</sup> KSL 350 artikulua: *La sociedad de responsabilidad limitada podrá excluir al socio que incumpla voluntariamente la obligación de realizar prestaciones accesorias, así como al socio administrador que infrinja la prohibición de competencia o hubiera sido condenado por sentencia firme a indemnizar a la sociedad los daños y perjuicios causados por actos contrarios a esta ley o a los estatutos o realizados sin la debida diligencia.*

<sup>172</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4256/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 22koa, 5.O.J.: *Sí puede controlarse si el administrador, al ejecutar el acuerdo, vulneró el deber de lealtad.*

interes onenaren alde egin ez izana<sup>173</sup>. Jurisprudentiako kasu bat aipatzearen, AGE 4256/2022, administratzaileak sozietatearekin ondasun higiezin batzuk ordainean ematea hitzartu zuen harekin zuen zor bat iraungitzeko; eragiketa hori KSL 229.1.a artikulua debekatzeko zuelarik. Dispentsa akordioan ukanbehar modura jaso zen ordainean ematearen eskritura publikoa egiletsi aurretik, eragiketaren objektu ziren ondasun higiezin tasazioa burutu beharra zegoela. Honela, akordioaren exekuzioan administratzailearen aldeko desleialtasuna egongo litzateke, adibidez, administratzaileak balioespenak egin zituzten pertsonekin ondasunen balioa merkatukoa baino handiagoa ezartzea itundu ezkerro edo datu okerrak ematean helburu bera lortzeko. Portaera horiek, fede onaren eta interes sozial onenaren aurkakoak izango lirateke. Dena dela, adibide hutsak dira, auziperatutako kasuan ez baitzen halako desleialtasunik gertatu.

Legezko sistema debekaturiko portaera burutu aurretik dispentsa lortzeko diseinaturik badago ere, debekatutako portaera exekutatzeko den bitartean zein behin exekutatutako baltzuak onestea edo berrestea posible da<sup>174</sup>. Orduan, abiapuntuan administratzailea desleial izan da eta baltzuak bi aukera ditu: dagokion akzioa tarteratu erantzukizuna galdatzeko edo haren portaera berretsi. Bigarren bidea hartu ezkerro, portaera desleiala atzeraeraginkortasunez osatuko da, KZ 1309 artikuluko<sup>175</sup> konfirmazioa<sup>176</sup>.

Berrespenak administratzaileari erantzukizuna barkatzea dakarren neurrian, beharrezkoa da, hasteko, *ex post* bada ere, hark baltzuari burutzen ari den edo jada burutu duen debekatutako portaeraren inguruko informazio osoa ematea interes gatazka egoera bere osotasunean ezagutzeko eta eragiketaren kaltegabetasuna bermatzeko<sup>177</sup>.

*Ex post* dispentsak organo eskuduna zein den zehazteko arazoa sortzen du, legez esanbidez arautu gabe dago eta. Interes soziala zehazteko ahala bazkideek dutenez batzar orokorraren bidez, interes sozialaren kontratuzko teoriari jarraituz, organo sozial horri

---

<sup>173</sup> Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4256/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 22koa, 5. O.J.: *En tal caso, el administrador no habría obrado de buena fe ni en el mejor interés de la sociedad en la ejecución del acuerdo de dispensa otorgado por la junta de socios.*

<sup>174</sup> Bartzelonako Probintzia Auzitegia, 15. Atala, 9359/2022 Epaia, 2022ko uztailearen 28koa, 5.O.J.: *La dispensa deberá ser previa a la realización de la transacción, pero cabe la ratificación por la sociedad de la operación ya realizada.*

<sup>175</sup> KZ 1309 artikulua: *La acción de nulidad queda extinguida desde el momento en que el contrato haya sido confirmado válidamente.*

<sup>176</sup> PORTELLANO DÍEZ, P. "Las obligaciones de los administradores, 226 orr.

<sup>177</sup> *Ibidem*, 227 orr.

dagokio berrespena ematea<sup>178</sup>, eta horrek esanbidezkoa izan behar du. Bestelakoan, baimenak adierazitako berme guztiak bete behar ditu, alegia, independentzia, ekitatea eta gardentasuna, beti ere, lehia egiteko debekua salbuesteko berezitasunak aintzat izanik.

Lanean zehar aipatu den moduan, kasu honetan ere, debekuak salbuesteko aukera ez da sozietateen zuzenbidera mugatzen. Besteak beste, komisio emaileak komisio hartzaileari saltzea agindu zaion hori erosteko baimena eman diezaioke edo erostea agindu zaion hori saldu, MK 267 artikulua. Faktorearen kasuan ere antzeko gertatzen da, MK 288 artikulua.

#### **4. ONDORIOAK**

Kapitalezko baltzuen administratzaileen leialtasun betebeharraren legezko eraentza aztertu, ostera, auzitegi eta epaitegiek kasu jakinetan egindako aplikazioa landu eta doktrina zientifikoaren proposamenak ikusi ostean, honako ideia hauek nabarmendu nahiko nituzke:

Hasteko, leialtasun betebeharraren eraentza arau etikoek josten dute. Esan liteke, zuzenbidea gidatzen duen fede onaren espezializazio bat dela, bereziki, kapitalezko sozietateen zuzenbideak dituen berezitasunetara egokitzen dena.

Jarraian, kapitalezko baltzuen administratzaileek dituzten eskumenen zabaltasuna eta horien eraginkortasun juridikoa zein diren aintzat izanik, ezinbestekoa da eraginkorra eta kaudimenduna den administratzailea hautatzea eta horretarako, harekiko konfiantza izatea funtsezkoa da. Konfiantza zenbakiekin neurtu ezin daitekeen aldagaia den neurrian, administratzaileei ezartzen zaien leialtasun betebeharrak haien boterearen muga modura funtzionatzen du.

Lehen muga leialtasun betebeharraren klausula orokorra da, eta horrek, formulazio zabala erabiltzen badu ere, oso lagungarria da administratzaileak legez tipifikatu ez den, baina, interes soziala baztertu eta pertsonala asetu duen portaera burutu duen kasuan, bazkideek eta baltzuak aukera izan dezaten haren aurka jo eta erantzukizuna eskatzeko. Orokortasuna, dena den, aho biko ezpata da. Bazkideak babesten dituen bitartean, konkrezio faltak administratzaileei, eta aholkulari juridikoei, haien jardueran desleial izaten ari direnaren inguruan ziurgabetasuna eragin dezake. Malgutasuna

---

<sup>178</sup> *Ibidem*, 227 orr.

praktika sozietarioaren garapenean eratorri daitezkeen jarduera desleialei egokitzeko araudiaren gaitasunaren erakusle da.

Orobat, legegileak, KSL 228 eta 229 artikuluetan debekaturiko portaera zehatzak zerrendatzean, kontzeptu juridiko zabalak erabili ditu eta horien zehaztapenean jurisprudentziak ataza esanguratsua izan du. Beste hainbaten artean, baltzuaren negozio aukerak nabarmendu nahiko nituzke eta nola, epaitegi eta auzitegiek interes soziala babestearen alde egiteko xedez, araudia merkatuko errealitatea oinarri harturik aplikatu duten. Egia da ere, baltzuaren negozio aukerak zein diren eta zein ez, ez dela parametro objektibo eta tasatuen bidez zehaztu jurisprudentzian, aldiz, inguruabarren arabera baloratu beharreko kontua dela, horrek *ex ante* ekartzen dituen zailtasunak anitzak izanik.

Amaitzeko, nabarmentzekoa da, betebeharraren izaera inperatiboaren ondoan interes gatazka sortzen duten egoerak ekiditeko betebeharrak salbuesteko aukera ireki izana legegileak. Abaguneak agerian jartzen du betebeharren zurruntasunak baltzuaren interesarekin jokatu behar duela. Beste hitz batzuetan esanda, gerta liteke maila teorikoan portaera burutzea baltzuarentzat kaltegarria izatea, baina oster, baltzu, administratzaile zein portaeraren xehetasunak eta inguruabarren azterketa eginda, kalterik ez eragitea edo baltzuarentzat onuragarria izatea. Hala, alderdi bientzat onurak sortzen dira: administratzaileak bere interesa asetzen du eta baltzuak administratzaile horrekin lanean jarraitu dezake debekaturiko portaera baimenduz. Adierazi nahiko nuke, bereziki arriskutsua iruditzen zaidala lehia debekua salbuestea horrek duen iraunkortasuna dela medio. Hori dela eta, kapitalezko baltzuen batzar orokorrak tentuz aztertu beharreko kontua da, ahalik eta informazio xeheena jasoz.

## BIBLIOGRAFIA

- ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús, “El interés social y los deberes de lealtad de los administradores”, *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 20 zkoa., 2016, 213-236 orr.
- ARIAS VARONA, F. “Régimen general del deber de lealtad de los administradores. Obligaciones básicas y conflictos de interés”, ARIAS VARONA, F. eta RECALDE CASTELLS, A. (Koord.) *Comentario práctico a la nueva normativa de Gobierno Corporativo: Ley 31/2014, de reforma de la Ley de Sociedades de Capital*, Dykinson, Madrid, 2015, 85-94 orr.
- ARROYO MARTÍNEZ, Ignacio, “Reflexiones en torno al interés social”, *Revista de derecho mercantil*, 240 zkoa., 2001, 421-440 orr.
- BAYÓN SANZ, P., “El concepto de interés social en el derecho societario español: las teorías contractualistas e institucionalistas a debate”, LÁZARO GÓNZALEZ, I. eta SERRANO MOLINA, A. (Zuz.), *Estudios jurídicos en homenaje al profesor Don José María Castán Vázquez*, Reus, Madrid, 2019, 491-511 orr.
- BOQUERA MATARREDONA, Josefina, “La dispensa del conflicto de interés de los administradores por la Junta General”, *Revista de Derecho de Sociedades*, 57 zkoa., 2019, 21-82 orr.
- EMPARANZA SOBEJANO, A. “Capítulo II. El conflicto de interés entre el administrador y la sociedad. Conflicto de interés directo e indirecto del administrador en el art. 228 c) LSC tras la modificación del art. 231 LSC”, *Las sociedades de capital: sus intereses y sus conflictos*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2022, 177-208 orr.
- EMPARANZA SOBEJANO, A. “La responsabilidad de los administradores por infracción del deber de lealtad (art. 227.2 LSC)”, PULIDO BEGINES, J.L. (Zuz.), *Responsabilidad de los administradores de las sociedades de capital*, Marcial Pons, Madrid, 2019, 211-234 orr.
- EMPARANZA SOBEJANO, A., “El deber de lealtad de los administradores y de evitar situaciones de conflicto”, EMPARANZA SOBEJANO, Alberto (Zuz.) *Las nuevas obligaciones de los administradores en el gobierno corporativo de las sociedades de capital*, Marcial Pons, Madrid, 2016, 137-158 orr.

- FERNÁNDEZ-ALBOR BALTAR, Ángel, *Prohibiciones de competencia en la sociedad de responsabilidad limitada*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2005, 106-133 orr.
- GARCÍA COMPANYS, A. “El deber de lealtad de los administradores: una aproximación desde el análisis económico del derecho”, OLMEDO PERALTA, E. eta GALACHO ABOLAFIO, A. (Koord.), *Derecho de sociedades. Cuestiones sobre órganos sociales*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019, 771-788 orr.
- GARCÍA DE ENTERRÍA J. eta IGLESIAS PRADA J.L., “Lección 22. Los órganos de las sociedades de capital (II). Los administradores”, MENENDEZ A. eta ROJO A. (Zuz.) *Lecciones de Derecho Mercantil. Volumen I*, Civitas, Cizur Menor, 2022, 470-472 orr.
- GARCÍA GARCÍA, E., “Artículo 228. Obligaciones básicas derivadas del deber de lealtad”, *Comentario de la Ley de Sociedades de Capital, Tomo III, La Junta General, la administración de la sociedad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 3133-3148 orr.
- GARCÍA GARCÍA, E., “Artículo 229. Deber de evitar situaciones de conflicto de interés”, *Comentario de la Ley de Sociedades de Capital, Tomo III, La Junta General, la administración de la sociedad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 3149-3170 orr.
- GARCÍA GARCÍA, E., “Artículo 230. Régimen de imperatividad y dispensa”, *Comentario de la Ley de Sociedades de Capital, Tomo III, La Junta General, la administración de la sociedad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 3195- 3208 orr.
- HERNANDO CEBRIÁ, Luis, “La buena fe en el marco de los deberes de los administradores de las sociedades de capital: viejos hechos, nuevas implicaciones”, *Anuario de Derecho Civil*, Vol. 69, 4 zkia., 2016, 1385-1426 orr.
- HERRANZ RAMOS, Isabel, “El deber de abstenerse de usar el nombre de la sociedad o la condición de administrador para influir indebidamente en la realización de operaciones privadas”, *Revista de Derecho de Sociedades*, 44 zkia., 2015, 303-352 orr.
- JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 227. Deber de lealtad”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 361-376 orr.

- JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 228. Obligaciones básicas derivadas del deber de lealtad”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 377-394 orr.
- JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 229. Deber de evitar situaciones de conflicto de interés”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 395-412 orr.
- JUSTE MENCÍA, J. “Artículo 230. Régimen de imperatividad y dispensa”, JUSTE MENCÍA, J. (Koord.), *Comentario de la reforma del régimen de las sociedades de capital en materia de gobierno corporativo (Ley 31/2014). Sociedades no cotizadas*, Civitas, Cizur Menor, 2015, 413-426 orr.
- MARTÍNEZ-CORTÉS GIMENO, Jesús, “El deber de lealtad de los administradores de las sociedades no cotizadas”, *Cuadernos de derecho y comercio*, Dykinson, Madrid, 65 zkia. 2016, 39-118 orr.
- MEMBRADO HERRERA, I. “Protección de la discrecionalidad empresarial y deber de lealtad de los administradores”, JORDÁ GARCÍA, R. eta NAVARRO MATAMOROS, L., *Mejora del gobierno corporativo de sociedades no cotizadas (A propósito de la Ley 31/2014, de 3 de diciembre)*, Dykinson, Madrid, 2015, 115-128 orr.
- MONTULL URQUIJO, Jorge, “El deber del administrador de evitar situaciones de conflicto de interés: la prohibición de competencia”, *Revista Lex Mercatoria*, 7 zkia., 2017, 77-82 orr.
- MÚGICA ALCORTA, Ramón, “Desde el Gobierno Corporativo a la responsabilidad de los administradores (y II)”, *Estudios de Deusto*, 58/1 zkia., 2010, 135-264 orr.
- PAZ-ARES RODRÍGUEZ, José Cándido, “Anatomía del deber de lealtad”, *Actualidad jurídica Uría Menéndez*, 39 zkia., 2015, 43-65 orr.
- PAZ-ARES, José Cándido, “La anomalía de la retribución externa de los administradores. Hechos nuevos y reglas viejas”, *InDret: Revista para el análisis del derecho*, 1 zkia., 2014ko urtarrila. Hemen ikusgai: <https://indret.com/wp-content/themes/indret/pdf/1037.pdf>
- PORTELLANO DÍEZ, P. “Las obligaciones de los administradores en el marco de la función de garantía del régimen de los conflictos de interés”, *Las sociedades*



- de capital: sus intereses y sus conflictos*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2022, 209-242 orr.
- PORTELLANO DÍEZ, Pedro, *El deber de los administradores de evitar situaciones de conflicto de interés*, Estudios de Derecho Mercantil, Civitas-Thomson Reuters, 2016, 113-122 orr. eta 144-162 orr.
  - RIBAS FERRER, Vincenç, “Deberes de los administradores en la Ley de sociedades de capital”, *Revista de Derecho de Sociedades*, 38 zkia., 2012, 73-154 orr.
  - RIBAS FERRER, Vincenç. *El Deber de Lealtad del Administrador de Sociedades*, LaLey, Madrid, 2010, 218 orr.
  - SÁNCHEZ-CALERO GUILARTE, Juan eta SÁNCHEZ CALERO, Fernando, “Capítulo 10: La organización de la sociedad anónima” *Instituciones de Derecho Mercantil, Tomo I, 20ª Edición*, Aranzadi, Cizur Menor, 2015, 254-314 orr.
  - URÍA R., MENÉNDEZ A., GARCÍA DE ENTERRÍA J., “La sociedad anónima: órganos sociales. Los administradores”, URÍA R. eta MENÉNDEZ A. (Zuz.), *Cursos de Derecho Mercantil I, Segunda edición*, Thomson-Civitas, 2006, Cizur Menor, 957-996 orr.
  - VALPUESTA GASTAMINZA, Eduardo, *Comentarios a la ley de sociedades de capital*, Wolters Kluwer, Madrid, 2018, 597-608 orr.
  - VICENT CHULIÁ, Francisco, *Introducción al derecho mercantil, 24ª Edición, Volumen I*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2022, 1211-1223 orr.

## **Epaia**

- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 5194/1998 Epaia, 1998ko irailaren 18koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4992/2001 Epaia, 2001eko ekainaren 12koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 7624/2002 Epaia, 2002ko azaroaren 18koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 2260/2007 Epaia, 2007ko apirilaren 12koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 3690/2008 Epaia, 2008ko ekainak 12koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 6666/2008 Epaia, 2008ko abenduaren 5koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil gela, 7170/2011 Epaia, 2011ko urriaren 4koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 1686/2012 Epaia, 2012ko urtarrilaren 17koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 6150/2012 Epaia, 2012ko irailaren 3koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 8863/2012 Epaia, 2012ko abenduaren 26koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 5407/2014 Epaia, 2014ko azaroaren 11koa.

- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 359/2017 Epaia, 2017ko otsailaren 2koa
- Auzitegi Gorena, Zibil gela, 3794/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 17koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4586/2021 Epaia, 2021eko abenduaren 12koa.
- Auzitegi Gorena, Zibil Gela, 4256/2022 Epaia, 2022ko azaroaren 22koa.
  
- Bartzelonako Probintzia Entzutegia, 15. Atala, 15716/2005 Epaia, 2005ko abenduaren 14koa.
- Nafarroako Probintzia Auzitegia, 3. Atala, 1164/2020 Epaia, 2020ko azaroaren 18koa.
- Las Palmas de Gran Canariako Probintzia Entzutegia, 4. Atala, 768/2021 Epaia, 2021eko apirilaren 27koa.
- Bartzelonako Probintzia Auzitegia, 15. Atala, 9359/2022 Epaia, 2022ko uztailaren 28koa.

### **Ebazpenak**

- Erregistro eta Notariotzen Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko abuztuaren 3ko Ebazpena (2016ko irailaren 23ko EBO, 230 zkia.)
- Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko maiatzaren 6ko Ebazpena (2021eko maiatzaren 24ko EBO, 123 zkia.).
- Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko martxoaren 28ko Ebazpena (2022ko apirilaren 19ko EBO, 93 zkia.).

### **Legezko testuak**

- 1885eko abuztuaren 22ko Errege Dekretua (1885ko urriaren 16ko Gaceta de Madrid, 289 zkia.)
- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua (1889ko uztailaren 25eko Gaceta de Madrid, 206 zkia.)
- 12/1992 Legea, maiatzaren 27koa, Agentzia Kontratuari buruzkoa (1992ko maiatzaren 29ko EBO, 129 zkia.)
- 1784/1996 Errege Dekretua, 1996ko uztailaren 19koa (1996ko uztailaren 31ko EBO, 184 zkia.)
- 1/2010 Errege Dekretu Legegilea, 2010eko uztailaren 2koa (2010eko uztailaren 3ko EBO, 161 zkia.)
- 5/2021 Legea, 2021eko apirilaren 12koa (2021eko apirilaren 13ko EBO, 88 zkia.)

## **Bestelako baliabideak**

- Diccionario panhispánico del español jurídico.
- Registro Mercantil Central, Datos estadísticos año 2020. Hemen ikusia: <https://www.rmc.es/documentacion/publico/ContenedorDocumentoPublico.aspx?arch=Estadisticas\ESTADISTICAS-2020.pdf>
- Registro Mercantil Central, Datos estadísticos año 2021. Hemen ikusia: <https://www.rmc.es/documentacion/publico/ContenedorDocumentoPublico.aspx?arch=Estadisticas\ESTADISTICAS-2021.pdf>
- Registro Mercantil Central, Datos estadísticos año 2022. Hemen ikusia: <https://www.rmc.es/documentacion/publico/ContenedorDocumentoPublico.aspx?arch=Estadisticas\ESTADISTICAS-2022.pdf>